

# uk

252. zenbakia / 2014ko maiatzaren 21a









GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA



www.gabrielaresti.eu

Andoni Egaña  
Iraia Elias  
Oier Guillan  
Ainhoa Alberdi  
Rafa Rueda  
Naia Membrillera  
Iban Urizar  
Alain Urrutia

antzerkia, musika, poesia, bertsoa, irudiak

# GABRIELEN LEKUA

sentikaria

## Erudio

Altzagako azoka zaharrearan  
Maiatzak 29 - 20:00etan  
Sarrera librea



Udaleko  
EUSKARA ZERBITZUA  
94 48 90 128




### UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkartea  
**HELBIDEA:** Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
**ZUZENDARIA:** Irantzu Sagaminaga  
**ERREDAKZIOA:** Zuberboa Iturburu, Julen Nafarrate,  
 Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Ziortza Vega  
**KOLABORATZAILAEK:** Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando  
 Llamasas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso  
 Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea  
**MARRAZKILARIA:** Laurita Siles  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Erika Martinez (944 911 337)  
**FILMAZIOA:** Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 <p><b>Getxo</b> UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua</p>	
 <p><b>Leioa</b> UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua</p>	 <p><b>YBELA</b></p>
 <p>Erandioko Udala</p>	 <p>Sopelako Udala</p>
 <p>Urdulizko Udala</p>	 <p><b>EUSKO JAURLARITZA</b> GOBIERNO VASCO</p>
 <p>Plentziako Udala</p>	<p>TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111</p>
 <p><b>BFA DFB</b> Bizkaiko Foru Aukundia Diputazio Foral de Bizkaia Kulturako Saria Departamento de Cultura</p>	

### Non zer

4. PLAZA. Iker Goñi (Getxoko Gure Esku Dago).
5. IRUDIA. Egurrezko txalupak zaharbarritzen.
6. FACEGUK. Zertarako balio dute azterketek?
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri, 50. hamarkada.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Fede Bilbao.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erudio 18. Sopela 20.  
Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

#### SAKONEAN

26. ALBUMA. Dantzaren Nazioarteko Eguna Getxon.
28. ARGAZKIA. Portu Zaharra.
30. BERBETAN. Garbiñe Petriarti Ijuria.
34. FOTOGRAFIA. ArgiHizkiak'13.
40. SAKONEAN. Uribe Kostako interesgune geologikoak.

#### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Jambo Amani?* filmari saria.
43. MUSIKA. Leioako Pop-Rock Lehiaketako finalistak.
44. LIBURUAK. Literatura Zarautzen.
45. KIROLAK. Elkartasun-lasterketa Getxon.
46. MUNDUKATUAK. Koldo Guemes Izurieta.
47. ZIENTZIA. Bidaiak denboran zehar (II).

#### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Urraburu aburi sushia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Jaunartzea Getxon, 1953.
54. AITORMENAK. Amane Ibañez Goikoetxea.

Azala: Aitor Galbarriartu (ArgiHizkiak'13)

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Garbiñe Petriati

#### Berbetan

Behatoliko zuzendariak Hizkuntza Eskubideen Egoera Euskal Herrian 2013 txostenaz eta beste jardun du.



11 Fede Bilbao



54 Amane Ibañez

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail.....

Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**



**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 944 911 337



**Iker Goñi**

&gt; Getxoko GURE ESKU DAGO taldearen komunikazioa

# Gure esku dago: ekainak 8

**Ekainaren 8an** “Gure Esku Dago” herri-ekimenak giza-katea erraldoia antolatu du Durango eta Iruñea artean Euskal Herriaren Erabakitze Eskubidea aldarrikatzeko. Dagoeneko, Getxon, Uribe Kosta eta Euskal Herri osoan hainbat ekitaldi antolatu dira aipatutako giza-katea iragartzeko. Getxoren kasuan 200 pertsonarentzako aurkezpena urtarrilean, *Gazta zati bat* dokumentalaren emanaldia (150 pertsona), 700 pertsonarentzako giza-katea Faduran, hainbat hitzaldi aretoen edukiera goraino beterik, e.a.

Giza-katean parte hartu nahi izanez gero, metroa erosi behar da lehenik. Getxoko taldeak Algortako metro plazan saltzen ditu metroak, ostiraletan (18:00-20:00) eta larunbatetan (12:00-14:00). Metroak 5 euro balio du eta beste 10 euro autobusak (Getxon). Uribe Kostako gainontzeko taldeek metroak non eta noiz saltzen dituzten jakiteko, euren facebook orrian begira daiteke. Metroa herriko taldeen bidez erostea aholkatzen dugu; hala ere, metroak inter-

net bidez erosteko aukera ere badago.

Lagunekin joan nahi baduzu, ez duzu metroa zertan aldi berean erosi. Ekainaren 8ko goizean autobus berean sartzeko aukera egongo da. Autoz ere joan daiteke, baina antolaketa erraztearren, autobusez joatea gomendatzen dugu. Horrez gain, gogoan eduki alkohola eta bolantea ez direla bate-ragarriak.

Ekainaren 8ko goizean, getxoztarrak Antzuolan egongo gara giza-katea osatzeko. Ondoren bi aukera egongo dira, Getxora zuzenean itzuli edo Bergarako jaietara joan. Bergaran hainbat ekitaldi antolatu dituzte: haurrentzako apar-festa eta puzgarriak, kontzertuak (Emon, Esne Beltza, eta Gose), herri-kirolak e.a.

Maiatzaren 31n, larunbatean, Algortako metro plazan goizez ekitaldia antolatze-ko asmoa daukagu metro salmentari amaiera emateko. Informazio gehiago behar izanez gero, hona hemen harremanetan jartzeko aukerak. ○

**GURE ESKU DAGO**

**JAI**

**EKAINAK 8 BERGARA**

**EGITARAUJA**  
12.00-12.30  
**GIZA KATEA**  
13.30 Ekitaldi berea

Eguraldiak aurera:  
 ↳ Une eta familien gunee (Bideberrit)  
 16.00 **IRIBEN LAGUNAK**  
Emanakelaren harretik eta ondoren **APAR FESTA**  
 17.30 **HERRIKA DANTZAN** erroimeta  
Egun guztian zehar puzgarriak eragile dira  
 19.30 **EMON**-en kontzertua

**Gazteen gunea**  
(San Martin Agirre Plazan)  
 15.30 **GOSE**-ren kontzertua  
 17.30 **ESNE BELTZA**-ren kontzertua

Zehazki plaza:  
18.00-20.00 Euskal Herriko erretorikatoreak itxarritzen

**Info+:**  
[www.gureeskudago.net](http://www.gureeskudago.net)  
[gureeskudagogetxo@gmail.com](mailto:gureeskudagogetxo@gmail.com)  
 facebook: Gure Esku Dago-Getxo

**KONTZERTUAK**  
**GOSE**  
**ESNE BELTZA**  
**EMON**

**BAZATOZ?**

## gu geu

### “Eo, eo! Eo, eo!”

“Amaitu da ilunien triste bizi beharra; ez dot maite xiri-mirixe. Eguzkixeri atiek zabaldu egingo deusodaz, zabaldu eta ku-ku egin!”

Gatibu talde gernikarrak maiatz hasieran Ereagako aparkalekuan (Getxo) abestu legez, hasi dira egun luzeak eta, besterik ezean, “Gabak zerueri begire” egoteko sasoa.

Eta horiekaz batera, ohi dan legez, ekin diogu jaien egutegiari bete-betean: orrialdeotan hainbat hitzordu aurkituko dituzu... Badakizu: “Eo, eo! Gorputze mogidu Eo, eo! Odola garbitu...”.

Eta gozatzeko koloreak besteko aukerak daudenez, ez ahaztu, begiak zabaltzea, burua apurtxo bat astintzea eta eskuei eragitea eskatzen dizun ArgiHizkiak lehiaketa: proposatutako 10 argazkietan oinarritutako testu laburrak (100 berba) edo labur-laburrak (160 karaktere) idaztean datza kontuak; sariak badaude!! Eta daborduko badakizkizunak (bestela: [www.argihizkiak.com](http://www.argihizkiak.com))...

Baina, badaezpada, pasa den urteko ekitaldiko argazkiak eta lehiaketako testurik onenak jasotzen dituen erakusketaren isla duzu [FOTOGRAFIA] atalean. Hasi bada, hatzamarrak *mogiduten!* Utzi txoriei burutik urtetan...

**UK-ko lan-taldea**

## [irudia]



ALGORTAKO AZOKA, 2014KO MARTZA

**Egurra eta haizea...** / Egurrezko txalupa klasikoak eta historikoak berreskuratzeko lan egiten du Itsas Egurra Haizean Usadioko Txalupa Elkarteak eta horietako bat erakutsi du Algortako azokan maiatz hasieran, baita lanotarako erabiltzen dituzten tresnak ere. Getxoztarrei erakutsi zieten euren egitekoa, izan ere, ontziak konpontzeaz gainera, horien erabilera bultzatu gura dute, bai jolaserako, bai arantzarako. Horrela, herriko gainontzeko elkarteak harremanak garatzeko ere baliatu dute erakusketak. Euren lanaren gainean gehiago jakin gura izanez gero [itxas.getxo.net](http://itxas.getxo.net) gunera jo dezakezu. ○ / Argazkia: Asier Menteak



Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Zertarako balio dute azterketek?



Algorta

**Jokin Ramos**

> ikaslea

Gehiegizkoa da nota azterketa baka-  
rean jokatzea. Azterketa txarto egin  
dezakezu, nahiz eta kurtso osoan zehar  
ikasten egon. Hortaz, hobe da hilean be-  
hin probaren bat egitea bilakaera ikusi  
ahal izateko. Horrela, azterketa horietan  
lortutako emaitzekin media egin eta kur-  
tsoko nota zehazteko.



Algorta

**Iñaut Amezaga**

> ikaslea

Azterketak ez dira beharrezkoak. Nik  
uste dut materia guztia lanetan landu  
beharko litzatekeela, eta ebaluazioa lan  
horien arabera izatea. Agian azterke-  
tak bai egin beharko liriteke, baina txi-  
kiak, ez orain arte ematen zaien garran-  
tzia dutenak.



Algorta

**Laia Martinez**

> ikaslea

Azterketa batean ezin duzu erakutsi  
dakizun guztia. Egun txarra izan dezake-  
zu azterketa egunean eta proba txarto  
egin. Nire ustez praktika gehiago egin  
beharko liriteke, benetako arazoei nola  
egin behar zaien aurre erakusten dute-  
nak. Azterketek ez dute ezertarako balio,  
dena praktikoagoa bilakatu behar da.



Algorta

**Jagoba Lopez**

> ikaslea

Garrantzitsuak dira, bestela jendea  
ez da ikasten jartzen eta klaseetara joa-  
tera mugatzen da. Beharrezkoa da ba-  
koitza bere kabuz ikasten jartzea norbe-  
raren gaitasuna neurtzeko. Azterketa ba-  
karrera mugatu orde, ikasleen notak  
neurtzeko, lanak egitea eta klaseetan  
parte hartzea.



Algorta

**Maria Viar**

> ikaslea

Nire kasuan egokiagoa da lanak egi-  
tea, etorkizuneko lana zelakoa den ikas-  
teko hobea delako lanen bitartez ikas-  
tea. Azterketa zure buruan zenbaki bat  
jartzera mugatzen da. Ni Bolonia-plane-  
an sartuta nago, eta lan asko egin behar  
ditugu, baina baita azterketa asko ere.  
Dena arindu beharko lukete.



Barrika

**Irene Fraile**

> ikaslea

Nire karreran astez aste ebaluatzen  
gaituzte, ez digute amaierako azterketa-  
rik egiten. Metodo hori egokiagoa dela  
uste dut, irakasleek gure bilakaera ikus-  
ten dutelako eta ez dugu nota osoa az-  
terketa bakar batean jokatzeko. Azken fi-  
nean, azterketan urduri jar zaitezke, blo-  
keatu eta oso txarto egin.



[lehen]

GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA



[orain]

ASERMENTXAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / NEGURI, 50. HAMARKADA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



## uribitakora &gt; landatik hirira



Aixerrotako landak, 2014ko martxoa

Testua: **Imanol Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Gure herri txiki hau da

Noizbait, nonbait jaio ginen ez gara horren errudun inguruak mugatuta egiten da mila lagun eta inguruak ere mugatzen du nola jardun. Hirian bizitzen pasa ondoren milaka egun asfalto eta etxeak nahiz izan oso ezagun landa gertu izan arren zein urrun sentitzen dugun.

Nahiz eta herrian izan eskola eta etxea, nahiz lanera joateko hartu ohi dugun kotxea ez al da nekagarria beti holan bizitzea? Deskantsua ez da luxu edo alperren "cliche"-a denoi komeni zaigu, ondo dago ohartzea, egin beharrak ahaztu eta deskonektatzea.

Inguruarekin ez da behar beste errespetu garai batean izana larre eta lore leku gaur egunean bihurtu da asfaltozko desertu, beraz izan nahi badugu mundu eder hori gertu guztiok behar genuke behintzat problema ulertu hiriko landa gunek ez daitezen desagertu.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
sustapena@argia.com · 943 37 15 45



Info-: kultur etxeetan eta gazteguneetan

## gazteentzako ikastaroak &gt; maiatza-azaroa

**Uribe Kostako** Mankomunitateak eta Leioako zein Getxoko Udalek bultzatuta eta gazteei begirako UK Gaztea Ekintzak programa abiatu dute hainbat ikastarogaz: Getxokoei eta Leioakoei begirakoak: Eli-kagaien Manipulatuzaile ikastaroa (maiatzak 27-28, 17:00-20:00, Kurtzio kultur etxean, Sopelan; euskaraz, doan); eta Beldur Barik Bideosormen Tailerrak (irailak 23-26, 14-17 urte bitartekoentzat: 17:00-

19:00 / 18-29 urtekoentzat: 19:00-21:00; Plentziako Gofni Portal kultur etxean, euskaraz, doan, izen-emotea: irailak 15-19). Mankomunitatekoei zuzendutakoak: ingeles ikastaroa (First Certificate eta Advanced; urria-abendua, goizez, 16-29 urte artekoentzat; doan, izen-emotea: irailak 15-19), eta Enpresa Praktikak Beka Programa (ekaina-iraila; 18-25 urtekoentzat; izen-emotea: maiatzaren 30era arte). ○


## garraioa &gt; Leioako campuserako autobusak

**EHUko** Leioako campusera hurbiltzeko Bizkaibusen autobus-zerbitzuaren "prekarietatea" salatu zuten ikasleek, barriro ere, hilabete hasieran. Urtero legez, aurren ere, errektoretzari euren kezak helarazi dizkiote: autobus-lineen eskasia, ordu-tegi urritasuna eta estutasuna jasaten dituztela, atzerapenak (ondorioz klasera berandu iristea) eta prezio garestiez gainera (aspalditik eskatzen dabilta ikasleentza-

ko autobus-bonu berezitua). Horrez gainera, autobusak jendez gainezka joan ohi direla, eta ondorioz segurtasun-arazoak daudela diote. Eskualdean joan-etorri hori egiten duten 3 linea baino ez daude: Getxotik, Leioatik eta Erandiotik baino ez dago autobus-zerbitzua Leioako campusera, gainontzeko uribekostarrek hiru gune horietako batera joan behar izaten dute autobusez campusera joateko. ○



Leioako Campusera doan autobusa



Ekainaren 6an ezkonduko da Sirenoa

## sirenoa &gt; balizko ezkontza

**Getxoztar** askok legez, Portu Zaharreko *Sirenoa*-ren ezkontzarako gonbidapengutuna jaso dugu. Ekainaren 6a izango da ezkontza-eguna, 19:30ean Telletxetik hasiko ei da ezkontza aurreko kalejira eta 20:30ean Txiki eta Otaegi-San Nikolas enparantzan izango da ezkontza eta ezteioturuntza. Horrenbestez, barikuz eta arratsalde ezkonduko zaigu *Sirenoa*; egoiki jantzita joan beharko ete da?! Horrez

gainera, Sirenoaren ezkongai nor den oraingoz inork ez daki... Halere, gonbidapenean irakur daitekenez: "Zu barik ez dago Planik! Zu barik ez dago Ezkontzarik!"; getxoztar dan-danak gonbidatuta dauela ere jakinarazi dute.

Akordura ekarri, *Sirenoak* hartu-emonan izan zuela Getxoko Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiaren (HAPN) eztabaidagaz... ○

**saiazgetaria**



Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



# Emaiozu euskara

Familia bidezko euskararen jarraipena hultzatzeko kanpaina



Zure seme-alabak euskara osasuntsu eta aberatsean hazi daitezen, aditu guztiak hat datoz esatean familia dela haurrak behar dituen elikagaiak ondoen eskaintzen dizkion giroa



euskaraz hazi eta bizi dadin

<http://www.getxo.net/euskara>



"Athleticen hasi baino lehen, eleberrri bi idatzi nituen"

## Fede Bilbao > Athleticen jokalaria ohia eta poeta

**Ez, ez da** kontraesana. Athleticen jokalaria ohia izatea eta poeta izatea guztiz bateragarria da. Hori da behintzat Fede Bilbao (Getxo, 1935) algotarrak uste duena: *"Guztiz normala da, gauza biak dira sortzaileak!"*. Bere lehenengo golak Getxo futbol-taldean sartu zituen, 18 urteaz Athleticen deia jaso zuen arte: *"Getxo futbolaren harrobia zen garai hartan. Athleticen Getxoko futbol-taldean ibilitako zazpi jokalaririk elkartu ginen: Orue, Mauri, Maguregi, Etura, Artetxe, Arieta eta ni neu"*. 22 eta 23 urteaz, baina, lesio larri biren ondorioz botak eskegi behar izan zituen: *"batzuk adin horregaz hasten dira futbolean, eta nik utzi behar izan nuen"*. Baina baloiari kolpeak emoteaz gainera, algotarrak beste pasio bat izan du beti: idaztea. *"Athleticen hasi baino lehen, eleberrri bi idatzi nituen"*. Olerkiak idaztea izan da batez ere bere plazera: *"Olerkiak idaztea oso dibertigarria da, baina narratiba lan itzela da, eta nire helburua ez denez dirua irabaztea..."*. Bilboak ez du gai finkorik idazterako orduan, edozertaz idatz dezake: *"Jainkoa, natura, maitasuna..."*. Getxori, berbarako, ehun olerki baino gehiago idatzi dizkio: *"Batik bat Portu Zaharrari, poesia hutsa da"*. Bere lana aitortzeko asmoz, Elias Amezaga saria emon barri diote: *"Amezaga euskaldun unibertsala zen, ikuspegi ireki eta askeduna. Ni ere horrelakoa naizela uste dut"*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**



# Jazzaldiko kartela prest!

**Diego El Cigalak** itxiko du **Jazzaldia** aurten; **uztailaren 2tik 6ra** Getxoko **taulara** igoko dira **Natalia Dicenta**, Jack DeJohnette Trio, **Hiromi The Trio Project** edota **Michel Camilo Trio**

Ezagutzera emon dute, azkenean, XXXVII. Nazioarteko Jazzaldiaren egitarau osoa. Taula nagusian joko dute Natalia Dicenta, Jack DeJohnette Trio, Hiromi The Trio Project, Michel Camilo Trio eta Diego El Cigalak, talde lehiaketako finalistakaz batera; eta sarrerek salgai daude. Hirugarren Milurtekoa atalean, barriz, doan entzun ahalko dira Juan Ortiz Qt, David Pastor & Nu-Roots, ¡Zas! Trio, Artur Tuznik Trio eta The Groove Investigators Qt. Gainera, jam saioak egingo dituzte The Piper's Irish Puben.



El Cigalak uztailaren 6an abestuko du, domekan

**Uda betean** ospatuko da Getxoko XXXVII. Nazioarteko Jazzaldia, uztailaren 2tik 6ra, Algortan. Biotz Alai plazan izango dira kontzertu nagusiak eta Geltokia plazan Hirugarren Milurtekoa atalekoak, azken horiek doan.

Taula nagusian talde lehiaketaren finalistik joko dute artista gonbidatuakaz batera, eta irabazleak domekan errepikatuko du emanaldia: uztailaren 2an, eguaztenean, Massimax Project taldeak eta Natalia Dicentak (10 euro edo prezio murriztuan 8 euro); eguenean, Liya Grigorian Triok eta Jack DeJohnette Triok (12/9 euro); barikuan, Lukas Gabric Groupek eta Hiromi The Trio Project taldeak (15/12 euro); zapatuan, Ylativ Algo Quintetek eta Michel Camilo Triok (25/20 euro).

Domekan, azkenik, Diego El Cigalak abestuko du eta hura baino lehen jardun-

go da talde lehiaketako irabazlea (20/16 euro). Egun guztietan joan gura baduzu abonamendua eros dezakezu 65 euroren truke (prezio murriztuan 52 euro) eta kontzertuak 21:00etan hasiko dira.

**“Geltokia plazan doako kontzertuak izango dira, The Piper's tabernan jam saioak eta Satistegin erakusketa”**

Horiek erosteko hainbat bide dago: Kutxabank-en bitartez (orotarako kutxazainetan eta [ticket.kutxabank.es/aulacultura/public/janto](http://ticket.kutxabank.es/aulacultura/public/janto) webgunean), 944 310 310 telefono zenbakira deituta eta Algortako Kultur Etxean.

Bigarren taulan eta Hirugarren Milurtekoa atalaren barruan, barriz, emanaldiak doakoak izango dira eta 19:00etan ha-

siko dira. Eguaztenean joko du Juan Ortiz Quartet taldeak (Euskal Herria), eguenean David Pastor & Nu-Roots taldeak (Valentzia), barikuan ¡Zas! Triok (Madril), zapatuan Artur Tuznik Trok (Danimarka), eta domekan The Groove Investigators Quintet taldeak (Asturias).

Gainera, bestelako ekimenak ere antolatu dituzte Algortan, urtero legez, Jazzaldia dela-eta. Batetik, The Piper's Irish Puben jam saioak gidatuko ditu Albert Vila Quartet taldeak uztailaren 3tik 5era. Bestetik, Satistegi tabernan Jose Hornaren argazkiak erakutsiko dituzte ekainaren 17tik uztailaren 20ra.

Azkenik, esatea Jazzaldiko kontzertu nagusien une onenak ikus daitezkeela ondoko webgunean: [www.ikuslab.com](http://www.ikuslab.com). ○

Info+: [www.getxo.net/eu/getxo-jazz](http://www.getxo.net/eu/getxo-jazz)

## Diru-laguntza deialdiak

Hezkuntza eta gizarte arloko elkarteentzat



J. B. Zabala ikastetxea, Algortan

**Diru-laguntza** bitarako deialdia zabaldu du udalak: elkarte sozialetarako bata, hezkuntza arloko taldeentzat bestea. Biatarako eskaera egin daiteke daborduko.

Hezkuntza alorrari dagokionez, Udalak 65.000 euro bideratuko ditu interes publiko eta sozialeko jardueretara: Getxoko ume eta gazteen gurasoei zuzendutakoak behar dute, “*haien heziketa orientatu, lagundu eta babesteko*”.

Gainera, diru horregaz ondorengo ekimenak ere egin ahalko dira, Udalak jakinarazi duenez: ingurumen arloko hezkuntza-proiektuak eta jarduerak; adimen handiko ikasleentzako eskolaz kanpoko jarduerak; gela egonkorretan eta ikasle gorrantzako programetan garatutako jarduerak; eta azkenik, ikastetxe publikoetan garatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta

jarduera osagarriak, lehen hezkuntzako umeentzat zein helduentzat.

Bestalde, gizarte larrialdiko laguntzak eskatzeko epea ere zabaldu du Udalak: azaroaren 21era arte eska daitezke. Iaz 757.113 euro emon zituzten, baina aurten 894.000 euro banatzea aurreikusiko dute: kopuru horretatik Eusko Jaurlaritzak ipiniko du 594.000 euro eta udalak 300.000 euro. Gastu zehatzei aurre egiteko baliabide gitxi daukaten pertsonen laguntzeko da diru hori, besteak beste: alokairua, energia, ura, zarama, eta antzeko gastuak ordaintzeko; lehen mailako beharretarako (jantziak, heziketa edo osasun artatzea sistema publikoetan sartzen ez denean) eta zorpetze gastuetarako. Iaz 604 eskaera egin zituzten getxoztarrek. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## BAPIRKE UDALEKUETAN IZENA EMON DAITEKE

Bizarra Lepoan elkarteak antolatzen ditu Bapiruke udalekuak 5 eta 12 urte bitarteko umeentzat eta izena emon daiteke maiztaren 26tik 28ra. Herriko eskoletan garatuko dira udalekuak eta hiru txanda egongo dira, daten arabera banatuta. Izena emoteko, ezin da telefonoz egin, Bizarra Lepoan bulegora hurbildu behar da (Martikoena 16, 2. solairua): egunero 10:00etatik 13:30era, eta astelehen eta eguaztentean 16:30etik 18:00etara. Bankuko ordainagiria eroan behar da, Osakidetzako txartelaren kopiagaz batera; bertan bete daiteke izen-emote orria. Informazio gehiago: 944 910 387 eta [info@bizarralepoan.org](mailto:info@bizarralepoan.org).

Info+: [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org)

## CON VOS ZERBITZUA EMAKUMEENTZAT

Sexu-jazarpena edo erasoak jasan dituzten emakumeentzako Con Vos harreraz zerbitzua eskaintzen dute terapeuta adituek. Zerbitzua emoten da astelehenetan eta eguaztentean, Gobelaurreko lokaletan (Romon). Aurretik eskatu behar da hitzordua: 900 828 890 (doakoa) edo [convos@sortzen.org](mailto:convos@sortzen.org).

Info+: [www.sortzen.org](http://www.sortzen.org)

## ITSAS-ZALDIK BERRESKURATU GURAN

Itsas-zaldien populazioa berreskuratzeko Hippocampus proiektuan parte hartzen dabil Getxo Aquarium: gure itsas bazterrean dauden espezie bietako bateko itsas-zaldiak dira, *hipocampus guttulatus* edo mutur luzekoak, nazioartean babestutako espezieetako bat. Getxo Aquariumen dauden itsas-zaldi aleak ugalketarako beharrezkoak diren teknikak garatzeko baliatzen dituzte. Izan ere, Vigoko CSIC-etik (Zientzia-lkerketen Kontseilu Gorena) ekarri zituzten. Gatibualdian jaiotako ziren Vigon, proiektu beraren baitan. Hau da: ez dituzte itsasoan arrantzatu. Horregatik ere ugaltzen dira gatibualdian.

Info+: [www.getxoaquarium.com](http://www.getxoaquarium.com)

**Inprimatu zure posterra**  
**airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin**

Pilo bat daukazu aukeratzeko

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

[www.bizkaiadesdeelaire.com](http://www.bizkaiadesdeelaire.com)

Sar zaitetz zure eskaera egiteko



**9,32€**

-tik hasita  
BIZ barne



**Jone Saitua Deusto** > artista plastikoa

“Sorpresara transmititu gura dut: koadro alaiak, positibistak eta originalak dira”



Erakusketa dauka Saituak Bilboko Pabellon N° 6 aretoan

**Barruko diseinua ikasi zuen Jone Saitua Deusto getxoztarrak, baina bere pasioa margoa da. Artista plastikoa da eta Bilbon erakusten ari da bere lana, Pabellon n° 6 aretoan (Deustuko erriberan): Retrospectiva 2010-2014 ekainaren 1era arte ikus daiteke; koadro akrilikoak, pirograbatuak eta collageak dira. Saituak aitarengandik jaso du pinturarekiko zaletasuna baina, gainera, moda diseinuan ere badabil: Lauburukolore marka sortu zuen 2010ean, eta ezagunak dira bere txapelak. Algortako Bidebitarte kalean dauka tailerra.**

—Bilbon da erakusketa, ezta?

—Bai, Pabellon N° 6 aretoan; Zawp mugimenduaren barruan dago eta 2011n erakusketa bat egin genuen 70 artistak; arrakasta handia izan zuen. Gero, Ramon Barea, Irene Bau eta bestelako antzezleek hartu zuten pabilioia. Eurakaz harremanetan gaude, Zawp-ek hiru hilean behin azoka egiten duelako bertan. Ramon eta Ireneri eskertu behar diet aukera hau.

—Barruko diseinua ikasi zenuen; pintura bokazioa da?

—Bai, aitak beti margotu du, etxerako,

eta pintzelen artean ibili naiz txikitatik. Iñaki Zarate margolariagaz klase batzuk emon nituen, baina gerora nire kabuz ikasi dut. Barruko diseinua ikasi nuen, nolabaiteko lotura izan dezake margoagaz, baina beste kontu bat da.

—Eta zure margoak erakusten ari zara: akrilikoak, pirograbatuak eta collageak?

—Retrospectiva 2010-2014 da erakusketaren izena eta nire lanaren zati bat erakusten dut. 2010ean hasi nintzen pinturagaz serioago, formatu handiagoko koadroak egiten. Ordutik hona egindako la-

nen zati bat erakusten dut. Danak dira ezberdinak, azkar lan egitea eta gauza desberdinak egitea gustuko dudalako. Lau serietan bana litezke erakusketako 25 koadroak: emakumeak, natura, agian musika eta euskal eraikuntzari buruzkoa.

**«Esaldiak txertatu ditut, erakusketari mugimendua emon guran»**

Hori hasi barri dut, baina pare bat koadro sartu ditut. Nire lana beti da oso koloretsua, alai eta koadro danek daukate sorpresatxoak: zerbait errealista egiten dut, baina fantasia apur bat ere sartzen diot; horrelako nahasketak egiten ditut. Akriliko batzuk ehunean margotu ditut, besteak oholetan, eta beti teknika barriak probatzen. Horregatik nahasten ditut materialak: adibidez, egurraren gainean pirograbatuak egiten dut, adibidez, eta akrilikoak sartzen diot, edo adarrak itsasten dizkiot, oihalak, e.a. Horiak jolasak dira.

—Esaldiak txertatu dizkiezu ere?

—Hori da. Batzuetan, esaldietatik dator kizku inspirazioa eta margotzean horrelako esaldiak eta pentsamenduak datozkit burura. Erakusketari mugimendua emotearren sartu gura nituen lagun baten poemak eta beste idazle baten testuak. Izan ere, koadroak nahiko estatikoak izaten dira eta arte-erakusketak hotzak izan daitezke. Nik sorpresa transmititu gura dut erakusketa honeguz, sorpresa onerako; gero ikusle bakoitzak interpretatuko du bere modura. Obra alai eta positibista da, baita originala ere: koadro danak desberdinak direlako. Gainera, atzera begiratua denez, aukera daukat nire lanaren historia erakusteko. Beraz, fase bakoitzaren hainbat koadro txertatu ditut. ○

Info+: [pabellon6.org](http://pabellon6.org)

## Antzerkirako tarteak Emakumeak Eszenan zirkuitua eta Eskola-Antzerki Jardunaldiak ekainean



Amigas... ¿para siempre? antzeztuko dute ekainaren 8an

**Areetako** Andres Isasi musika-eskolak antzerkiari leku egingo dio ekainean, ekimen bigaz: batetik, XXXII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak; bestetik, VIII. Emakumeak Eszenan zirkuitua.

Eskola-Antzerki Jardunaldiak ekainaren 1ean egingo dituzte, domekan. Emanaldiak goiz eta arrastiz izango dira, 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, eta sarrera doakoa.

Emakumeak Eszenan zirkuitua, barriz, hilaren 8tik 28ra egingo da. Lau obra antzeztuko dituzte: ekainaren 8an, *Amigas... ¿para siempre?* (Luna Llena taldea); hilaren 14an, *Vidente por accidente*

(Aztia); ekainaren 15ean, *Pensar en alto* (Totum) eta, hilaren 28an, *A destiempo* (Hamaika). Emanaldi guztiak hasiko dira arrastiko 19:00etan eta daborduko sarrearak eros daitezke musika-eskolan bertan: bakoitzak 3 euro balio du.

Bestalde, gogoratzea musika-eskolako ohiko zinema-eskaintza maiatzerako: hilaren 25ean *The wish fish* umeentzako filma emongo dute, 17:00etan, eta sarrera bakoitzak 2,10 euro balio du; maiatzaren 30ean, barriz, *El consejero* proiektatuko dute zine-klubean, 21:00etan, eta sartzea 2,90 euro ordaindu beharko da. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## FILATELIA-ERAKUSKETA VILLAMONTEN

Maiatzaren 24ra arte ikus daiteke filatelia-erakusketa Algortako kultur etxean. Urtero legez, Getxoko filatelia-elkarteak antolatuta du. Egun gitxi barru kenduko dute eta, beraz, azkar ibili behar duzu ikusi gura izanez gero. Aurten Portu Zaharreko mojak omendu dituzte, duela 125 urte daudelako Algortan; (Karitatearen alabak taldekoak dira). Horretarako, zigilu-marka berezia egin dute postetxearen laguntzagaz.

## ALGORTAKO ETA ROMOKO JAIETARAKO IRUDIAK

Algortako eta Romoko jai-batzordeek lehiaketak abiatu dituzte jaietako kartelak eta irudiak aukeratzeko. Saninazioetako kartelaren lehiaketarako lanak ekainaren 4ra arte aurkez daitezke, Eztabaida gunean (Villamonte plazan). Epaimahaiak hiru aukeratu, eta internet bidez aukeratu ahalko dute herritarrek zein duten gogokoena (ekainaren 11ra arte). Romotarrek, barriz, maiatzaren 31n aukeratu dituzte jaietako kartela, zapia eta kamisetaren diseinuak, Koadrila Egunean. Gainera, musika-taldean lehiaketa ere abiatu dute eta CDak aurkez daitezke ekainaren 17ra arte. Irabazleak jaietan joko du puntako talde batezagaz.

Info+: [ttiki.com/64377](http://ttiki.com/64377) eta [aixerrota.jaibatordea@gmail.com](mailto:aixerrota.jaibatordea@gmail.com)

## IKASTEKO ARETOETAKO ESKAITZA ZABALDU DA

Azterketa garaiko eskariari erantzuteko ikasteko aretoak atondu dituzte eta ordutegia luzatu dute uztailearen 6ra arte. Horrela, udal-liburutegiei batu zaizkie kultur etxeetako eta Julio Caro Baroja-Getxo I institutuko ikasteko gelak. Liburutegiek zabalduko dute aste barruan (goizez eta arrastiz), eta zapatuetan (goizez eta arrastiz). Romoko eta Villamonteko ikasteko-gelak, barriz: zapatuetan (goizez eta arrastiz), eta domeketan (arrastiz). Julio Caro Baroja institutuko gelak, azkenik: aste barruan (arrastiz), eta zapatuetan eta domeketan (goizez eta arrastiz).

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Xabier Olabarrieta** > Leioako PP alderdiko bozeramailea

## “Garrantzitsua litzateke Udondoko zubia Kultur Ondare izendatzea, aldaketen aurrean babesteko”

**Apirileko Osoko Bilkuran Udondoko zubiaren gaineko mozioa aurkeztu zuen PPK eta aho batez onartu zuen Udalbatzak. Horrela, zubia Kultur Ondare izendatzeko eskatuko dio Udalak Eusko Jaurlaritzari. Olabarrieta PPKo udal-bozeramaileak azaldu digu mozioaren zergatia.**



Olabarrieta udaletxe aurrean

—Zer dela-eta eskakizun hori?  
—Urtarrilean Bizkaiko Batzar Nagusietan ere aurkeztu genuen, baita onartu ere. Ondare nahiko garrantzitsua da zubi azpian dagoen burdinezko arkua. Itsasadarretik bakarrik ikus daiteke, izan ere, duela 30 bat urte beste parte bat ipini zioten gainean eta ez da ikusten errepidetik. Boluetako Santa Ana fabrikaren egin zuten arkua 1848an eta Bilboko Areatzako zubiaren parte izan zen. Gerra Karlistetan zubia suntsitu zen, 1876an, baina zati bat Leioako beste zubi bat ordezkatzeko erabili zuten, Udondo errearen gainean. Zubia balioan jartzea eta Kultur Ondare izendatzea merezi du eta, bide horretan, Eusko Jaurlaritzarena da hurrengo pausoa. Garrantzitsua da, balizko hirigintza-aldaketen aurrean babesteko, baita herritarren artean ezagutarazteko ere.  
—Hiri-Antolamendurako Plan Nagusia

**berrikusiko da eta industria-ondarea identifikatzea garrantzitsua da?**

—HAPN berrikusteko lehen urratsak dira oraingoz eta momentua izango da zubi hau eta antzeko ondarea kontuan hartzeko. Orain arte ez da egin horrelako lanik, industria-ondarea bigarren edo hirugarren mailako ondare izan da eta, beraz, ailegatu da momentua horrelako ondarearen balioa kontuan hartzeko eta, nola ez, HAPN horretan sartzeko; Udalaren eta

herriaren garapenean kontuan hartzeko.

**—Leioa aberatsa da industria-ondareari dagokionez?**

—Bai. FAES fabrika babesteko ere eskatu dugu, hor dago Vicrila lantegia e.a. Lehen bazeuden beste lantegi batzuk, batez ere Lamiakon, baina desagertu dira eta berandu da zerbait egiteko. Baina oraindik badaukagu ondarea. Lana daukagu horrekin aurrera egiteko, egindako akatsak zuzentzeko eta gure ondarea babesteko. ○

## Jairik jai maiatzetik aurrera

Iritsi dira **Lamiakoko eta Txorierriko** jaiak; **Maskarada** hilaren **30ean** izango da



Lamiako Maskaradaren arrastiko saioa

**Bada sasoi!** Udarako gitxi falta da eta auzoetako jaiak hastear daude. Lamiakon maiatzaren azken aste akabuan izango dira, baita Maskarada ere; Txorierrin ekain hasieran ospatuko dituzte.

Lamiakoko jaiak Maskaradagaz abiatuko dituzte maiatzaren 30ean, barikuan (antzezpenaren hiru zatiak izango dira 17:30ean, 18:30ean eta 22:30ean, azkena elizaren alboan). Gainera, barikuan izango dira motozerra-mozketa erakustaldia eta dantzaldia Aldats taldeagaz. Zapaturako, barriz, hamaika jarduera antolatu dituzte: lapiko-txapelketa, puzgarriak, igel-toka, euskal dantzak, futbito zein tiragoma-txapelketak, txorizo-jana, Briel magoaren ikuskizuna, mozorro-lehiaketa,

Peliren bakarriketa edota Galker taldearen dantzaldia. Domekan amaituko dira jaiak, baina gozatzeko aukerarik ez da faltako: futbol-partida, meza, puzgarriak, Leioako Musika-Bandaren kontzertua, herri-kirol-txapelketa, guatekea, e.a.

Lamiakori lekukoa hartuko dio Txorierririk, ekainaren 6an: bariku horretan kuadrilla-jaietsiera eta DJ emanaldia izango dira. Zapatuan, besteak beste, krosa, tortilla-lehiaketa, umeentzako jarduerak, mus-txapelketa eta kuadrilla-arte jokoak egingo dituzte, baita dantzaldiak ere, Xaiborregaz eta Haker taldeagaz. Domekan, amaitzeko, bazkaria, txapelketak, talo-tailerra, dantza-erakustaldia eta karaokea egingo dituzte. Ondo pasa! ○

### ELKARTASUN AZOKA: MAIATZAK 23, 24 ETA 25

Gaixotasun neuromuskularrak dituzten pertsonen laguntzeko elkartasun azoka egingo da maiatzaren 23tik 25era, Bulebarren. Bizkaiko Eritasun Neuromuskularen Elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzagaz. Azoka zabalduko dute: barikuan, 16:00etatik 21:00etara; eta zapatuan eta domekan, 10:00etatik 21:00etara. Bigarren eskuko produktuak salduko dituzte: arropa, poltsak, bitxiak, liburuak, e.a. Elkarteko gaixoentzako zerbitzuak hobetzeko erabiliko da dirua.

Info+: [www.asociacionbene.com](http://www.asociacionbene.com)

### PAILAZO BATEN ZIRRIBORROAK IKUSGAI

*Totinadeak. Pailazo baten zirriborroak erakusketa Kultur Leioan ikus daiteke ekainaren 8ra arte. Toti Toronellen lanak dira: “Totinadeak dira zirriborroak eta kasualitateak baino ez, behin nire arkatzen puntaren atzean agertu zirenak”. Toronellek berak azaldu duenez, “zuri jaiotzen, baina mundu guztia bezala, kolore hutsean jaiotzen. Horrela hasi zen guztia: kolore hutsean bizitzen ikasiz! Bizitza-tonalitateak aurkituz eta koloreak bilatuz gardentasunean”.*

Zirriborroak erakusketa-gelan daude eta erakusketa egunero bisita daiteke, doan, goizez eta arrastiz.

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

### UDATXIKI PROGRAMAN IZENA EMON DAITEKE

Maiatzaren 30etik ekainaren 6ra izena emon daiteke Udatxiki programan: 2008, eta 2011 bitartean jaiotako ume leioaztarrei zuzenduta dago eta uda partean egiten da, goizez. Altzaga, Mendibile eta Artatza-Pinuetan ikastetxeetan garatuko da. Izena emon behar da Hezkuntza sailean (Kultur Leioako 4. solairuan), 09:00etatik 14:00etara. Prezioen eta bestelako kontuen informazio gehiago eskura dezakezu ondoko bitartez: 946 072 576 eta [udalhezkuntza@leioa.net](mailto:udalhezkuntza@leioa.net).

Info+: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)



## AIXERROTA BHI

· TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK · NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
· GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86



Luberr Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
TF :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberr@euskalnet.net](mailto:luberr@euskalnet.net)  
[www.luberr.biz](http://www.luberr.biz)

#### - Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

#### - Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

#### - Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

#### - Barrukaldeak lorategi bihurtzea



## [erandio]

**Eneko Benito Fonseca** > Garilak 26 musika-taldeko kidea

“Erromerietan jendeak ondo pasatu gura du, eta uste dut oholtza gainean ondo egiten dugula”

**Garilak 26 musika-taldea egin du Eguzkizaleak Bilboko konpartsaren abestia, bere 25. urteurrena dela-eta. Gainera, Kanpomartxoko abestia ere egin zuen taldeak aurtengo jaialdirako. Talde gaztea jo ta su dabil plazaz plaza jotzen, arrakasta lortu du denbora oso gitxian.**

—Orain urte eta erdi sortu zen taldea eta kontzertu pila emon dituzue, pozik?

—Ander trikitilariaren ametsa zen erromeria-taldea osatzea. Aurretik saiakeraren bat eginda zeukan, baina ez zuen lortu. Azkenean, biok serio hartu genuen proiektua eta musikari bila hasi ginen. 2012ko abenduan emon genuen lehen kontzertua, oraindino abeslaririk gabe. Apurka sartu ziren taldean Iker (gitarra), Ieltsu (bateria), Unai (baxua) eta Maria (ahotsa). Anderrek, ordea, taldea utzi barri du arazo pertsonalak direla medio, hemendik aurrera, Josu Elorduik joko du trikitia. Ez dugu baztertzeko abesti propioak egitea.

—Bazabiltzate horretan, ezta? Kanpomartxo jaialdiaren eta Eguzkizaleak konpartsaren abestiak sortu dituzue.

—Bai. Gure lehen kontzertu handia iazko Kanpomartxokoa izan zen. Berbots taldeagaz harremana geneukan eta bertan jo-



Musikariak Asuko entsegu-lokalean

tzeko proposatu genien, baita abesti bat egitea ere. Aurten eurek proposatu digute jotzea eta abestiagaz aurrera egitea. Bestalde, Eguzkizaleak konpartsako kide naiz eta iaz kontzertua emon genuen Aste Nagusiko Euskal gunean. Gerora, bilere-tan proposatu nuen abesti bat egitea 25. urteurrena zela-eta. Gainera, hainbat musikariren kolaborazioa izan dugu.

—Kanpomartxoko abestiak, gainera, koreografia ere badauka?

—Sorpresa izan zen, azken astean jakin

genuen, baina ez genekien zelan taularatu zuten koreografia Kanpomartxon. Kontzertuari abesti horregaz ekin genion eta berehala Kanpomartxon zeuden guztiak dantzan hasi ziren: oso-oso polita izan zen.

—Eta lotu barik zabiltzate, beraz?

—Iaz 40 bat emon genituen eta aurten 30 kontzertu lotuta dauzkagu oraingoz. Kritika txarrik ez dugu jaso: erromerietan jendeak ondo pasatu gura du, eta uste dut taula gainean ondo egiten dugula. ○

## Gabrielen lekua sentikaria Maiatzaren 29an izango da ikuskizuna Altzagako azoka zaharreen



Sopelako saioa: Amets Arzallusek abestu zuen; Erandion, barriz, Andoni Egañak kantatuko du

**Antzerkia**, musika, poesia, bertsoa eta irudiak nahasten ditu *Gabrielen lekua* sentikaria ikuskizunak. Altzagako azoka zaharreen ikusi ahalko da maiatzaren 29an, eguenean. Egitasmoagaz Gabriel Arestiren ondarea ezagutarazi gura dute, “*idazle gisa zein pertsona legez, egun, inoiz baino presentean dagoena*”.

Gabriel Aresti kultur elkarteak sortu du ikuskizuna ikusleengan gogoeta eragin asmoz, zelan eta idazlearen pentsamenduaren bitartez: “*Belaunaldi batzuentzako gogora ekartzea izango da; beste batzuentzako aurkikuntza*”. Arestiren lekuak hartu dituzte ardatz, euskal literatura eta kul-

tura, eta bere izaeraren zein obraren alderdirik garrantzitsuenak lotu dituzte leku horiekaz: Bilbo, Ea, Baiona, e.a.

Pertsonaia bik egingo dute kontakizuna eta, Arestiren obraren pasarteakaz batera, sortzaileek beren beregi emankizunera-ko sorturiko lan barriek osatuko dute mami. Andoni Egañak eta Oier Guillanek gidatuko dute saioa, eta eurakaz batera beste zereginetan arituko dira Iraia Elias, Ainhoa Alberdi, Rafa Rueda, Naia Membrillera, Iban Urizar eta Alain Urrutia. Emanaldia arrastiko 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da. ○

Info+: [www.gabrielaresti.eu/gabrielen-lekua](http://www.gabrielaresti.eu/gabrielen-lekua)

## TIROLINA JARDUERAK MAIATZAREN 31N

Abentura-jarduerak antolatu dituzte maiatzaren 31rako, Irailaren 23a plazan. Ondokoak praktikatu ahalko dira goizean: tirolina (8 urtetik gorakoentzat), jolasak (3 urtetik gorakoentzat), puzgarriak eta ohe elastikoak (5 urtetik gorakoentzat), *bike balance* eta arku-tiroa (6 urtetik gorakoentzat). Animatu eta probatu!

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## FAOETAKO JAIK EKAIN HASIERAN

Faoetan jaiak ospatuko dituzte ekainaren 6, 7, 8 eta 11n. Barikuan jaurtiko dute txupina, ekainaren 6an, eta tortilla-lehiaketagaz abiatuko dituzte jaiak; gauean dantzaldia egingo dute. Zapatuan, barriz, umeentzako jarduerak egingo dira, paella-jana, txitxiburruntzia eta dantzaldia. Domekan, dantza-erakustaldia eta tiragoma-txapelketa egingo dira eta, eguaztenean, herri-bazkaria. Ondo pasa!

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## IKASTEKO GELAK ZABALIK AZTERKETETAN

Azterketa sasoi dela-eta ikasteko gelak zabaldu dituzte. Astrabuduko kultur etxekoa maiatzaren 24, 25 eta 31n, eta ekainaren 1, 7, 8, 14, 15, 21, 22, 28 eta 29an erabil daiteke, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Erandiogokoko gizarte etxekoa, barriz, asteleheneetik barikura, 16:00etatik 21:00etara.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## HAPN-REN WEBGUNEAK

Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiar buruzko webgunea prest dago, Plana osatzeko prozesua ezagutarazteko. Lehen fasean herritarren iritzia jaso gura dituzte eta webgunearen bitartez egingo dute inkesta bat prestatu dute eta bertan erantzun daiteke. Planaren prozesuari buruzko informazio guztia ere topa daiteke.

Info+: [erandiopgou.com](http://erandiopgou.com)



# adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia\* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

\*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

## GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 [regaraizar@gmail.com](mailto:regaraizar@gmail.com)  
[www.garaizar.biz](http://www.garaizar.biz)  
Illeta kalea 1 ALGORTA

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34



**TUPPERSONG SAREAN**

*Tupperra kalera!* kanpaina bultzatu asmoz bideoa egin dute Sopelako ikastetxeetako ikasleakaz eta interneten ikusgai dago: [www.youtube.com/watch?v=37AjPOEs2Ag](http://www.youtube.com/watch?v=37AjPOEs2Ag). Herriko saltokietan *tupper*-a erabiltzeko abiatu zuen kanpaina iaz SHK Sopelako Hondakinen Kontseiluak.

Info+: [www.sopelaudala.org](http://www.sopelaudala.org)

**LAN-ARRISKUEN GAINEKO IKASTAROA EKAINEAN**

Lan-arrisku psikosozialei buruzko ikastaroa antolatu du Udalak herriko langileentzat eta enpresentzat. Enpresa arduradunek ikasiko dute zelan kudeatu euren lana langileengan estresa sortu barik; langileek, barriz, lana antolatzeko eta estresa ekiditeko teknikak ikasiko dituzte. Ekainean egingo da, doan.

Info+: [www.sopelaudala.org](http://www.sopelaudala.org)

**EUSKAL SELEKZIOARI BAI; DISPERSIORIK EZ**

Apirileko Udaltzako mozio bana onartu zuen Euskal selekzioaren alde eta presoan dispersioaren kontra. Batetik, “*Euskal selekzioa nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehia dadila aldarrikatu*” zuen. Bestetik, “*presoak ohiko egoitzatik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzeko prozesua hasteko*” eskatu die “*erakunde eskudunei*”, baita “*gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoek Espetxe Araudia aplikatzeko*” ere.

Info+: [www.sopelaudala.org](http://www.sopelaudala.org)

**HONDARTZARA SEGURU**

Oinezkoentzako pasarela erabilgarri dago hondartzetara joateko. Loroño kalean dago, BI-634 eta BI-2122 errepideek bat egiten duten biribilgunearen gainean. Igarobide arriskutsua da oinezkoentzat eta pasarela eraiki gura zuten aspaldi. Une egokian amaitu dituzte lanak, hondartzetako garaia hastear dagoela. Horrenbestez, uda honetan lasai ibili ahalko dira itsas-zaleak.

**Erdigune irisgarria gura Sopelako erdigunerako irisgarritasuna hobetzeko prozesua abiatu dute**

Info+: [www.sopelaudala.org](http://www.sopelaudala.org)

**Herri** erdigunean irisgarritasuna eta bizitza-kalitatea hobetu asmoz prozesua abiatu du Udalak. Konponbideak adosteko herritarrek batera egingo dute prozesua. Izan ere, “*konponbidea ez da erraza, kaleen zabalera dela-eta*”.

Udalak jakinarazi duenez, epe laburrean, oinezkoentzako gune barri gehiago ipini gura dituzte, baita bidegorri sarea handitu ere, “*bestelako konponbideak baztertu barik: bide ziklableak edota abiadura gixiko guneak*”.

Lehenengo urratsa izango da “*arazo eta aukera azterketa sakona egitea, auzo-*

*kideakaz batera*”. Hiru interbentzio-gune zehaztuko dituzte eta aurre-proiektu bana egingo dute.

Horretarako, hainbat lan-saio prestatu dituzte asteotarako, “*gune komunetan elkarbizitza zelakoa den*” azal dezaten sopoloztarrek. Horietako bat emakumeen beharrezan zuzenduta dago eta maiatzaren 29an egingo da, 19:00etan, udaletxe hall-eant. Arlokako tailerrak ere egingo dituzte eta, aurre-proiektuak amaitutakoan, erakusketa bitartez aurkeztuko dituzte, herritarrek horiek baloratze aukera izan dezaten. ○

**Alberto Urretxo Zubillaga** > Euskadi Brass proiektuko kidea  
“Metalezko musika-tresnen profesional, ikasle eta zaleok elkartuko gara topaketan”



Info+: [euskadibrass.com](http://euskadibrass.com)

**Maiatzaren 31n** Euskadi Brass topaketa egingo dute Kurtzio kultur etxean. Antolatzaileen artean dago Alberto Urretxo Zubillaga Sopelako bizilagun eta Bilboko Orkestrako tronbonista.

—**Zer da Euskadi Brass?**

—Proiektu barria da, sortzen ari gara. Metalezko musika-tresnak jotzen ditugun profesionalok, ikasleok eta zaleok osatzen dugu. Helburua da topaketetan eta tailerretan elkartzea eta une horiek partekatzea, ondo pasatu, ikusentzuleen aurrean kontzertuak emon asmoz. Formazioari begira ere bagabiltza: profesionalok euren esperientziak azaltzen dituzte. Bakoitzak badauka bere bidea, eta ondo dago noizean behin elkartzea eta eguneroko lana osatzea, batez ere gazteen etorkizunerako; beharrezkoa deritzogu. Batez ere Oscar Abella Euskadiko Orkestrako tuba-jotzaile bakarlarria eta biok gabiltza ekimena sustatzen.

—**Zer egingo duzue maiatzaren 31n?**

—Goizean, ikasleekin eta irakasleekin taldeko klase antzekoa egingo dugu, *master class* modukoa. Irakasleek alde tekniko buruz hitz egingo dute informazioa partekatuz eta, bide batez, elkarri laguntzeko. Ikasleek ondo baliatuko dute eguna, irakasleak ezagutzeko aukera izango dute-eta. Gainera, eguerdian kontzertua emango dute hiru metal taldek. Arratsaldean, barriz, bigarren master class bat egingo dugu interpretazioari buruzkoa. Irakasleak orkestra mundukoak izango

**«Ondo dago elkartzea batez ere gazteen etorkizunerako»**

dira: Bilboko Orkestrakoak, Nafarroako Orkestrakoak, e.a. Amaitzeko, kontzertua emango dugu Euskadi Low Brass-ekin batera: Euskadi Brass barruan dago, eta tronboiek eta tubek osatzen dute; Euskadi Brass-en, gainera, tronpetak eta tronpak daude. Antzeko topaketak egingo ditugu beste hainbat herritan. ○



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**DIDAK hamilton IDIOMAS****Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)**

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**OIARBIDE DEKORAZIOA**

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 [gorkaoiarbide@hotmail.com](mailto:gorkaoiarbide@hotmail.com)  
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



**Gosariak,**  
**Pintxoak,**  
**Giro eta musika onena**  
**ONGI ETORRI!!**

Bentabax 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**zure**  
**publizitatea**  
**hemen!**

94 491 13 37 - [publiuk@aldizkaria.biz](mailto:publiuk@aldizkaria.biz)



## ANTZERKI AMATEURREN AZKEN EMANALDIA, 31AN

Antzerki amateurren jaialdia antolatuta dute Berangon beste urte batez. Hilabete osoan zehar hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera egon da Berangoko Antzokian. Maiatzaren 10ean eta 17an izan ziren aurreneko bi antzezlanak. Hurrengo eta azkeneko saioa hilaren 31an izango da, arrastiko 19:00etan. Tokiko Txirlora-Acadæe taldea igoko da oholtza gainera, Fernando Ansoleagaren "Canción de cuna" lana antzeztera. Saio guztiak gazteleraz izan dira.

## IPAR AMERIKAKO MUSIKAZ GOZATZEKO KONTZERTUA

Ekainaren 7an, zapatua, Ipar Amerikako musika ekarriko dute Berangora, Impromptu taldearen ekimenez. Hala ere, aipatu kontzertua ez da edozelangoa izango. Izan ere, saio horren helburua didaktikoa izango da, George Gershwin musikariaren lanaren gainean jardungo dute-eta. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Berangoko Antzokian. Sarrera euro batera eskuratu ahal izango da.

**MR TALLER MECANICO**  
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas  
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargailuak, Soinu...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9  
48993 GETXO

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**  
F.M. 102.6 Mhz  
www.bizkaiairratia.com

**Iñaki Gorrotxategi** > euskal pastel onenaren irabazlea

"10 urtez saiatu naiz titulua eskuratzen, eta ohore handia da lortu izana"



Tolosako Iñaki Gorrotxategi gozogle ezagunak irabazi du Euskal Pastel Onenaren Titulua

Iñaki Gorrotxategi gozogle tolosarrak jaso du Euskadiko Euskal Pastel Onenaren Titulua. Maiatzaren 4an egin zen txapelketa Berangon, eta aurtengo edizioan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritako 15 pertsonak parte hartu zuten.

—Euskadiko euskal pastelaren txapelketa irabazi duzu Berangon...

—Bai, 10 urte inguru daramatzat txapelketa horretan parte hartzen, eta orain arte erdiko postuetan geratu izan naiz beti. Aurten, berriz, epaileek irabazlea nintzela esan zidatenean ezin nuen sinetsi. Ilusio oso handia izan da, Euskadin egiten den mota honetako txapelketa bakarra delako. Txistorren edota odolkiaren munduan gutxienez 30 txapelketa daude eta horietako bat irabaz dezakezu. Hala ere, euskal pastelaren kasuan, txapelketa bakarra egiten denez, hori irabazteak urte osoko tendentzia markatzea dakar.

—Zelan hartu duzu sari hori?

—Saria berez plaka bat izan da, baina garrantzitsuenaz ez da plakaren balorea, ho-

rrek adierazten duena baizik. Gozoglea izanda, Euskadiko euskal pastel onenaren irabazlea izatea ohore handia da niretzat. Horrek guztiak oihartzun handia izan du, eta orain jendeak kola egiten du irabazlearen euskal pastela dastatzeko.

### «Almendra mikatzaren zaporea da euskal pastel onenaren sekretua»

—Zein da Euskadiko euskal pastelik onena prestatzeko sekretua?

—Lehenik eta behin, ondo eginda egotea. Trikimailurik ez dago. Nik zaporea eta ehundura ezberdinekin jotzea gustuko dut, ez izatea masa astun bat. Hala ere, almendra mikatzaren zaporea nabaritzea gustatzen zait.

—Gozoglea izanda eskarmentu handia izango duzu mundu horretan, ezta?

—Partehartzaile asko okinak dira. Ni gozoglea izanda gurinarekin eta lehengai leunagoekin lan egiten ohituta nago. Hori dela eta, bestelako gustu bat izaten dugu gozogleok. ○

**Gorlizko pandero-joleak** > liburua kaleratu dute

"Gure kultura eta tradizioak jendarteratu nahi ditugu"



Araluze, Ibarra, Benito, Peña, Azpiazu, Ibarzabal, De la Maza eta Ureta dira egileak

**Gorlizko** pandero-jotzaile talde batek, beste hainbat lagun laguntzagaz batera, panderoz jotzeko 215 abesti batzen dituen liburua egin du. Aipatu lana hainbat lekutan eskura daiteke "prezio txikian"; hala nola, Gorlizko Turismo Bulegoan, kultur etxean, kioskoan, Etxebarria liburutegian, Trujipan dendan, Nohon, AEKn eta Gorlizko jubilatuen klubeko jatetxean.

—Panderoz jotzeko kantuak batzen dituen liburua kaleratu duzue...

—Bai, beharrezkotzat jotzen genuen horrelako proiektu bat aurrera eramatea. Duela hiru urte abestien liburu txiki bat editatzen hasi ginen Santiago egunean mundu guztiak festan parte har zezan. Aurten, handiago bat egin dugu, abesti tradizionalak eta modernoak batzen dituen. Horrekin, taldeak ez du etekinik lortuko. Izan ere, lortutako diru guttia Jangai elkarteari emango diogu, jende askori laguntzen baitiote elikagaiak bartzatuz eta banatuz.

—Zenbat abesti batu dituzue?

—Guztira 215 abesti batu ditugu, atzo, gaur eta betiko kantak; giro polita sortzen dutenak. Liburu barruan hainbat abesti aurki daitezke, esate baterako: "maite zaitudalako", "behin batean Loiolan" eta "a ze polita". Erosten duenak ikusiko du, kar-kar-kar.

### «Lortutako dirua elikagaien bankura bideratuko dugu»

—Zein helburu izan duzue horregaz?

—Bere garaian Gorlizko Udalarai azaldu genion bezala, abesti-liburua gure kultura jendarteratzeko ekimen bat baino ez da. Berez ez du garrantzi handiagorik, oinarrikoena gure kulturari, hizkuntzari eta tradizioei bizitasuna ematea da. Horrekin batera, liburuaren salmentarekin lortutako dirua elikagaien bankura bideratuko dugu, Jangai elkartearen eskumenez.

—Zeintzuk berezitasun ditu liburuak?

—Edonora eraman daitekeela, edonorekin ondo pasatzeko. ○

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**UKnatura**  
ZITEK PORTUGALSTE  
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALSTE  
MARIA DIAS DE HARO, 68  
48960 PORTUGALSTE (BIZKAIA)

2013-2014 KURSOA

- \*BIOERAKUNTZA TALDEARRAK
- \*ARTISAU XABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- \*BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- \*ENERGIA BERRIZLAGARRIAK
- \*HERAZU KAYAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org 092705471 / 046742241

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harrizko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia - fisioterapia

**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779



## ESKUALDEKO UMEAK EUSKARAZ OLGETAN

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak tokiko umeek eta gurasoek alkarregaz euskaraz jolasteko hainbat aisialdi-jarduera proposatu ditu maiatzerako eta ekainerako. Horretarako, hainbat aukera eskainiko dituzte.

Info+: [www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org)

## IDI-PROBA TXAPELKETA URDULIZEN

Beste urte batez idi-proba txapelketa egingo dute Urdulizko Iparraldeko probalekuan. Aurtengoa XXXI. edizioa izango da, eta maiatzaren 23an, 24an eta 26an jokatu dira probak, 21:00etatik aurrera. Idien pisatzea proba bakoitzaren egunean bertan egingo dute, 10:00etan. Guztira 10 jabe lehiatuko dira beren buztarriak, txapelketak emoten duen sari nagusia lortzeko: 1.250 euro, Udalaren mantak, garaikurra eta txapela. Bigarrenak 1.100 euro jasoko ditu, eta hirugarrenak, barriz, 960 euro.

## DENBORAN ZEHAR BIDAIA DUTE PLENTZIAN

Plentziako Institutuko 4. mailako ikasleek denboran zehar bidaiatzeko egitasmoa abiatu dute. Gaur eguneko eta antzinako argazkiak montajeak egin dituzte, eskualdeko leku esanguratsu ugarien eboluzioa zelakoa izan den erakutsiz. Proiektua Plentziako Goñi Portalen ikus daiteke, maiatzaren 26ra arte; eta Gornizko kultur etxean, ekainaren 9ra arte.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Urduliz

### 6 milioi euroko aurrekontuak onartu barri ditu Urdulizko Udalak



2,1 milioi euro bideratuko dituzte inbertsioetara

**Inbertsioan**, ongizatean eta enpleguan oinarrituko dira 2014rako Urdulizko Udalak onartutako 6 milioi euro inguruko aurrekontuak. Horietatik, 2,1 milioi euro inbertsioak egitera zuzenduko dituzte; 256.000 euro tokiko ongizatea hobetzera; eta 125.000 euro enplegu eta formakuntza-planak egitera bideratuko dituzte.

Aurrekontuen herena baino gehiago udalerrian proiektuak aurrera eramateko inbertsioetara bideratuko dituzte. Horien artean, aipatzekoak dira udalerriko hainbat gunetan irisgarritasuna hobetzeko inbertituko dituzten 180.000 euroak; eskola zaharra gazteleku bihurtzeko obrak amaitzeko 80.000 euroak; eta Fermin Deunaren ingurua hobetu ahal izateko 60.000 euroak.

Gaur egun bizi den krisi ekonomikoak gogor jo du tokiko familiengan. Hori dela-eta, Urdulizko Udalak, Mankomunitatearen laguntzagaz, 256.000 euro

zuzenduko ditu ongizatea hobetzeko proiektuetara.

Urdulizko familia ugari gero eta gehiago pairatzen dute langabeziaren amesgaiztoa. Izan ere, atzeraldi ekonomikoaren aurretik, Urdulizen bizi zen langabezia tasa % 5ekoa zen; gaur egun, or-

### «Udalerriko langabezia murrizteko hainbat formakuntza-programa bideratuko dituzte»

dea, % 12a gainditu du. Hori dela-eta, Uribe Kostako Behargintzaren laguntzagaz, tokiko udalak 125.000 euro bideratuko ditu udalerriko langabeei zuzenduta egongo diren lan eta formakuntzarako hainbat plan sortu eta aurrera eroran ahal izateko. Horrez gainera, hainbat formakuntza-programa bideratzeaz gainera, arduradunek adierazi dutenez, udalerriko emakumeen laneratzean oinarrituko dira batik bat. ○

# Mai. 21 - Eka. 9

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 944 911 337

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Hibernando Estudios kolektiboa.** Maiatzaren 31ra arte. Algortako Torrene aretoan. Doan.

► **Karen Amaia argazkiak.** Ekainaren 14ra arte. Algortako kultur etxean. Doan.

### LEIOA

► **Sanjuanetako kartel-lehiaketako lanak.** Ekainaren 29ra arte. Aterpe Leioa gaztegunean.

### GORLIZ

► **Lehen eta orain: Gorliz & Plentzia.** Maiatzaren 26tik ekainaren 9ra. Sertutxenan. Doan.

### SOPELA

► **Abdelaziz Benkhayren margoak.** Maiatzaren 26tik ekainaren 15era. Kurtzio kultur etxean. Doan.

## ANTZERKIA

### ERANDIO

► **Umore bakarriketa: Luismi.** Maiatzak 24, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Gabrielen lekua sentikaria.** Maiatzak 29, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

### LEIOA

► **Lamiako maskarada.** Maiatzak 30, 3 atal: 17:30, 18:30 eta 22:30ean. Auzoan zehar eta azken zatia elizaren alboan. Doan.

### BERANGO

► **Cancion de cuna.** Maiatzak 31, 19:00etan. Berango Antzokian.

### SOPELA

► **Buba eta Bubu.** Ekainak 1, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean.



Erresuma eta Fedea trilogiaren azken eleberria da Gure Jerusalem galdua

### ► Hitzaldia

### Aingeru Epaltza Irakurzaleen Txokoan

*Gure Jerusalem galdua* eleberriaz jardungo da Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960) idazlea Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren solasaldien baitan. *Erresuma eta Fedea* trilogiako hirugarren eta azken eleberria da: "Abenturaz beterik dator: gudu odoltsuak eta amodio sutuak, errege-aretoak eta kartzela krudelak, mendekuak eta traizioak, konspirazioak eta sabotajeak, Mediterraneoetik Parisera; horrez gain, malenkonia kutsu batek blaitzen du kontakizuna, urteak iragan ahala Mailu zahartu, mila jipoi hartu eta bere printzipioei uko egin ez dien bakarrik ohartzen denean dela...". Animate eta hurbildu Villamontera maiatzaren 29an, 19:30etik aurrera.

• **Non:** Algortako kultur etxean • **Noiz:** Maiatzaren 29an, 19:30ean

### GETXO

► **Amigas... ¿para siempre?.** Ekainak 8, 19:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 3 euro.

Maiatzak 26, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean. Doan.

### GETXO

► **Nevada.** Maiatzak 29, 20:00etan. Areetako Glass tabernan. Doan.

### SOPELA

► **Euskadi Brass topaketa.** Maiatzak 31, egun osoan. Kurtzion.

### BARRIKA

► **Koruen kontzertua.** Maiatzak 31, 20:00etan. Andra Mari elizan. Doan.

## MUSIKA

### ERANDIO

► **Dantzaldia.** Maiatzak 25, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

► **Musika-eskolako entzunaldia.**

## ZINEMA

### GETXO

► **The wish fish.** Maiatzak 25, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

► **El consejero.** Maiatzak 30, 21:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

### BERANGO

► **Futbolin.** Maiatzak 25, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

### ERANDIO

► **Las aventuras de Peabody y Sherman.** Maiatzak 31, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Her.** Maiatzak 31, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

## BESTEAK

### GETXO

► **Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: Uribe Kostako finala.** Maiatzak 24, 17:30ean. Fadura kiroldegiko areto nagusian. Doan.

### GORLIZ

► **Familiarteko Berbalaguna.** Maiatzak 28, 17:00etan. Kiroldegian.

► **Bizkaiko Trikitixa Eguna.** Maiatzak 31, egun osoan.

### ERANDIO

► **Abentura ekintzak.** Maiatzak 31, 11:00etan. Irailaren 23a plazan (udaletxe aurrean). Doan.

### SOPELA

► **Herri-kirol txapelketa.** Maiatzak 31, 12:30ean. Udaletxe plazan.

### LEIOA

► **Gaztetan lehiaketaren sari-banaketa.** Ekainak 6, 19:30ean. Kultur Leioako hitzaldi-aretoan.




ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



[albuma]



# Dantzarien eguna

Apirilaren 29a izendatu zuten Dantzaren Nazioarteko Eguna. Han-hemen egun horren bueltan prestatu ziren ekitaldiak; berbarako, Getxon antolatutako ekimenaren irudiak dituzue hauek, maiatzaren 10ean San Nikolas plazan ateratakoak. Hortxe, Getxoko zenbait dantza-eskola, akademia eta taldeetako dantzariak estilo askotako dantza-erakustaldia eskaintzen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







XGERTXOKO UDAL LIBURUTEGIA

**Portu Zaharra / Etxetu plaza.** Joan dira urteak eta aldatu dira jantziak eta bizimodua, baina erraz ezagut daiteke argazki honetako lekua. Algortako Portu Zaharra da, gizona dator Etxetu plazaetik. Arraunak daroatza eskuan: eskaileak jaitsi eta portura helduko zen, batela hartu eta arrantzara joateko agian. Portu Zaharrean badago, oraindino orain, egurrezko batelik, hondartza gainean; batzuk zaharagoak besteak baino, baina auzoa legez, horiek ere ez dira asko aldatu...



[berbetan]

Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendari da 2010etik Garbiñe Petriati Ijurra (Arbizu, Nafarroa, 1962). Bere lan-jarrduna beti euskaingintzan burutu du, besteak beste: 12 bat urte emon zituen AEKn, gero Sakanako eskualdean (Nafarroa) *Bai, euskarari* ziurtagiriaren hedapenean teknikari lanetan, eta ostean Sakanako Bierrik Fundazioaren euskarazko Guaixe astekarian eta Belexe irradian kudeatzaile. Behatokiko zuzendaritza Paul Bilbaoren ordeztatu zuen, algortarra Kontseiluko idazkari nagusi eta Behatokiako presidente izendatzean. Orintsu aurkeztu dute Hizkuntza Eskubideen Egoera Euskal Herrian 2013 txostena.

# Garbiñe Petriati

## giltzarrapoak zabaltzeko lan nekezean

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hizkuntza Eskubideen Egoera Euskal Herrian 2013 txostena aurkeztu barri duzue; diozuenek: *“erakunde publiko zein pribatuek hizkuntza-eskubideen bermea aintzat ez hartzearen ondorioz, herritarrek eskubidez gabeturik ikusten du bere burua askotan”*. Eta, oraingoan, hezkuntzararen alorreko egoeran ipini duzue arreta berezia.

—Bai, gertatu dena da euskararen lurralde osoan pairatu edo nozitu dituztela herritarrek irakaskuntzarekin edo hezkuntzarekin lotutako urraketak. Ipar Euskal Herriari dagokionez, jakina da 1850. urteko lege bat baliatu duela Frantziako Estatuak Hendaian eta Beskoitzen ikastolen hedapena oztopatzeko; nahiko larria, oraindik ere ez delako bukatu... Horrekin batera, aurreko urteetan errepikatutako den egoera ere eman da 2013an:

ikasketa prozesu guztia euskaraz burutu duten ikasleek gero unibertsitateko sarbidea ematen dien baxoa azterketa frantsesez egin behar dute, alegia; horrek ikasleendako dakartzan zailtasun guztiekin... Horiek izan dira nagusiki Ipar Euskal

rritarrek hainbat zailtasun ere salatu dituzte; nabarmenena guretzat, gainera horren lanketa berezia egin genuelako 2013an: Zuiako kuadrilan eta Murgian kokaturik dagoen eskolan D ereduaren ezin izan zutela ikasi, seme-alabak ezin

### **“Herritarrek ez badute bultzatzen egiten administrazioak lasai-ederrean mantentzen dira bere horretan”**

Herrian herritarrek salatu dituztena. Nafarroa, jakina da eta urtetan bizi duten egoera da: hegoaldeko ikasleek euskaraz eta D ereduaren ikasteko dituzten zailtasunak. 2013an D ereduaren zabalpena oztopatzen segitu du Nafarroako Gobernuak. Horren albotik, EAEn, nahiz eta hizkuntzak ofizialtasuna aitortuta izan, he-

izan zituztela matrikulatu salatu zuen bertako guraso talde batek. Horrez gainera, Arabar Errioxako Guardiako institutuaren batxilergoa euskaraz egitea ere ezinezkoa da. Gero, bestetik, unibertsitate mailan, zenbait karreratan hainbat ikasgai euskaraz jasotzeko ere zailtasunak salatu dituzte. Orduan, nahiko hedatu edo





orokortu den egoera izan da hezkuntzarena 2013an.

—Aipagarria den beste gaietako bat izan da hauxe: hainbat udalek edo Gipuzkoako Foru Aldundiak, euskararen normalizazioaren alde egindako aurrerapausoen, zein euskara planen aurkako jarrera hartu duela Espainiako Estatuak.

—Gure ustez herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bidea prebentzioa edo egoera horiei aurea hartzea dela. Hala, norabide horretan, esaterako: Gipuzkoako Aldundiak eta hainbat udalek kontratazioetan kontuan hartu beharreko hizkuntza-irizpideak jartzea batetik, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak justizia arloan euskaraz aritzeko dauden zailtasunei aurre egiteko aurkeztu zuen Auzia Euskaraz proiektua ere urraketak saihesteko bideak direla: aurre hartzea, horrelako neurriak abiatzea eta martxan jartzea. Horrekin batera, langile euskaldunak edo elebidunak kontratatzea, bestela betikotu egingo da urraketa egoera horien panorama. Zentzu horretan, langileen arloari dagokiolarik, uste dut EITBk ere hartu duela erabaki hori, edozein mediotan aritzeko ere, sartuko diren langileak euskara jakin beharko dutela. Hori da bidea, gure ustez.

—Horregaz lotuta, euskara ordenantzak dituzten erakundeek ere jazarpena jasan dute. Gure eskualdean, Getxon sortzekotan dabilta; agian, Paul Bilbaogaz duzun harremanagatik edo, ezagutuko duzu egoera... Oro har, zuen ustez zer garrantzi dute halakoek?

—Eskubide guztien bermea administrazioei dagokie, eta administrazioak daude nolabait herritarrei bizitza errazagoa egiteko; edozelango eskubideak bermatzeko, baita eskubide linguistikoak ere. Askotan gertatzen dena da herritarrek ez badute bultzatzen administrazioak lasai-ederrean edo lasai asko mantentzen direla bere horretan; herritar batek edo norbaitek bultzatzen ez duen bitartean. Orduan, ordenantzak esaterako, euskararen normaliza-

zio-bidean urratsak emateko bide eragin-korra dira; udalek euren baitako funtzio-namenduan euskarari gero eta leku gehiago emateko eta irizpide dagoeneko finko batzuk zehazteko tresna dira, betiere euskararen eta euskararen erabileraren normalizazioa helburu dutela. Getxokoa zehazki zertan dagoen ez dakit, irizpide batzuk bazeudela badakit, orain ordenantza izatera emateko bidean direla ere, baina xe-

## “Egoera alda daiteke herritarrak bide hori hartzen badu, eskubide horri ez badio uko egiten; eraginkorra da”

hetasunik ez dut. Alabaina, zentzu horretan, eta azken boladan garbi ikusten ari gara, udal edo bertako administrazio bategatik urrats bat eman edo neurriak hartzen dituzte, estatuaren aldetik prozesu hori edo neurri horiek galgatzeko jarrera abiatu dutela. Iaz argi ikusi genuen, Espainiako Estatuak horrelako neurriak hartu dituzten udalen kontra zer-nolako bidea abiatu duen; nahiz eta Europako Parlamentuak pasa den urtean ebazpen bat onartu zuen iradokiz bere baitako 28 estatuei desagertze arriskuan dauden hizkuntza horiek bultzatzeko; diskriminazioa alde batera utzi eta hizkuntza horiek bultzatzeko politikak abiatzeko iradoki zien bere baitako estatu guztiei. Bada, Frantziako eta Espainiako estatuak justu kontrako norabidean

## “Baina, oso zaila da etengabe kexatzen bizi behar izatea! Izugarri neketsua da! Eta nekagarria! Ezin da!”

eman dituzte urratsak pasa den urtean. —Herritarren bultzada edo euren eskubideen aldarrria egitea benetan garrantzitsua eta beharrezkoa dela aipatu duzu. Horretarako euskaldunek zer aukera edo bide dituzte?

—Badakizu, aipatu dudana moduan, berez administrazioen zeregina da eskubide

hauek ere bermatzea; baina norbaitek bultzatzen ez duen bitartean, bada, horixe... Ez dira aintzat hartzen, ez dira kontuan hartzen; bertako hizkuntzan ere zerbitzuak eman behar direla, herritarren eskura jartzen diren euskarri, baliabide eta informazio oro euskaraz jartzea ez da kontuan hartzen norbaitek hori salatzen edo horren kontra egiten ez duen bitartean. Hori, herritar askok egiten dute Behato-

kiak eskaintzen duen zerbitzuaren bidez: Euskararen Telefonoa. Ikusi ahal izan duguna da, ez kasu guztietan, baina badagoela egoera aldatzerik eta urratsak ematerik herritarrak bide edo jarrera hori hartzen baldin badu; eraginkorra da. Esaterako: lehen aipatu dut Murgiako kasua, bada berriki jakinarazi die eskolako zuzendariak hurrengo irailean D ereduari abiatu dela haurreskolan hasiko den taldea; hortxe dago herritarren ahaleginari esker, ondorio positibo bat; halako beste hainbat ere badira... Baten bat aipatzeagatik: Kutxen fusioak, Kutxabanken harreran, atzerapausoak ekarri zituen, orain dela bi urteko txosnean ere jaso genuen; lehen euskara hutsean funtzionatzen zuten sukurtsaletara joan eta orain ezin euskaraz

egin. Hori salatu egin du herritarrak, gainera, konstanteki, eta beno, asko dauka hobetzeko, eta aurten ere kexa asko jaso ditu Kutxabankekin, baina urrats batzuk eman ditu: kutxazainean konfigurazioa aldatu du euskarari ere tokia egiteko, bada zerbait; baten batean langile guztiak erdal-dunak ziren tokian euskaldunak ere jarri

dituzte; Arabako sukurtsal guztietan se-gurtasunaren gaineko oharrak eta kartelak gaztelera hutsean zeuden, eta herritar bategatik egindako kexaren ondotik horiek guztiak aldatzeko agindua eman zuen e.a. Eta asko dauka hobetzeko, baina ikusten dena da badagoela urratsak ematerik herritarrak bere eskubide horri ez badio uko egiten. Baina, ez da erraza; oso zaila da etengabe kexatzen bizi behar izatea! Izugarri neke-

## “Behatokiak duen balio nagusietakoa: babesa eskaintzen diola egoera horiek gainditu nahi dituen herritarrari”

tsua da! Eta nekagarria! Ezin da! Gainera, guztioi gertatzen zaigu: egun horretan altxatu zaren indarren, aldatzearen arabera, batean gauzak errazago pasatzen uzten dituztu, ala bestean, *“hauxe dagoeneko dozena bat aldiz gertatu zait! Zerbait egingo dut!”*; edo erantzun txar bat edo tratu desagoki bat jaso duzu euskaraz aritu nahi izateagatik eta *“zerbait egingo dut!”*. Halakoetan jotzen du herritarrak guregan... Baina, ezin da hala izan! Ezin da! Gainera, askotan, egoera asko deserosoak ere badira, eta herritarra nabarmen gelditzen da, adib.: hilaran zaudenean, zure txanda iritsi, eta euskaraz aritu nahi duzula eskatzen duzunean, horrek hilarako atzeko aldekoen aldetik ere eragin dezake... Eta nabarmen geratze hori, gainera, beti euskaldunak pairatu behar du. Ez da erraza! Eta hori,

nik uste, Behatokiak daukan balio nagusietako bat: babesa eskaintzen diola egoera horiek guztiak gaintitze bidean jarri nahi dituen herritarrari.

—Txostenean ikus daiteke kexen kopuruak behera egin zuela pasa den urtean; ostera, zoritxarrez, horrek ez dauka inolako zerikusirik edo harreman zuzenik egoeragaz, ezta?

—Joera handia izaten duzue kazetari-

zenbakietan, eta datuetan, eta ehunekotan zentratzeko; eta gu, beti, ahalegintzen gara hortik aldentzeko. Zergatik? Esanguratsua badira, baina zenbakiak ez dira egoeraren erakusle. Herritar batek nortasun agiria euskaraz egin ezin duelako Behatokira jotzen duenean, eta herritar bakarra izan daiteke, kexa bat da, bai! Baina egoera horrek euskaldun guztiei eragiten die! Edo, osasun-arazo baten gaineko jarraibideak osasun-etxean euskaraz eskatu eta ez dizkiotenean eman, ez daudelako, kexa bakarra izan daiteke, baina egoera horrek osasun-etxe horretara doazen euskaldun guztiei eragiten die. Orduan, zenbakiena erlatiboa da; zenbakiak ez dute egoeraren argazkia osatzen, egoerak baino; horiek ematen dute benetako egoeraren nolabaiteko lagina. ○

### 2013ko txostena

—Salaketak guztira: 1.062

—Herritarrek jarririkoak dira gehienak

—Txosna honako ataletan banatzen da: —Osasuna, Justizia, Herrizaingoa, Hezkuntza, Administrazioa, Ekonomia, Zerbitzuak, Hedabideak, Aisialdia eta Gizarte eragileak

—Jasotako hainbat kexa:

—Barrika: —Barrikako herritarrak kexu dira udal txerak telefonoz deitu eta ez dutelako arreta euskaraz jasotzerik izan. Herritarrak dioenez, arazo konpontzeko beste bide batzuk topatu behar izan zituen horrek dakarren kalte eta denbora galtzearekin.

—Getxo: —Getxoko Udalak zinegotzien eskura jartzen duen dokumentazioa gaztelania hutsean banatzeagatik kexa bat baino gehiago jaso du. Gai-ordena, mozioak eta udal-taldeen lanerako behar-beharrezkoak diren bestelako dokumentuak izan dira horien artean.

—Leioa: Egunkarian paratutako iragarkia gaztelania hutsean argitaratzeagatik dute zerikusia Ermuko, Leioako eta Mallabiko Udalek jaso dituzten kexak.

—Plentzia: Beste alderdi batzuek banatutako aldizkariak (Plentziako Talde Independenteeak, kasu) gaztelania hutsean argitaratzen dira

Info+: [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)

Euskararen Telefonoa: [www.euskararentelefonoa.com](http://www.euskararentelefonoa.com) 902 194 332 [telefonoa@behatokia.org](mailto:telefonoa@behatokia.org)

### Iluntasuneko argitxoak; irribarre txikiak

—Ohitu zara euskararen, bere normalizazioaren eta egoeraren, iluntasunetan bizitzera; baina, zerk alai diezazuke eguna? Txikitasuna izanagatik, Behatokiko zuzendari legez daroazun lau urteotan zerk eragin dizu irribarretxoak?

—Beitu, urratsik txikiena ere... Askotan iruditzen zaigu txikikeriak direla, ez direla neurri esanguratsua, baina, egia esa-

teko, eta hori da Behatokiaren helburua, urraketa egoera horietan eragin eta urratsak emateko indar egitea; bada, esaterako: Bizkaiko Foru Aldundiak edo Bilboko Udalak (eta jaso ditu kexak iaz!) seinaletika aldatzea, eta begira, zein kontu erraza eta konpontzeko samurra den; bada, ez duen hori aldatzeko ahal-egina egiten. Hala, herritarrak kexak jartzearen ondorioz kartel bat aldatu dene-

an edo webgune bat euskaraz jarri denean, nahiz eta neurri apalak eta txikiak iruditu, uste dut koxka bat igotzea dela, eta hurrengo koxkatik hurbilago egotea dela... Eta nire jardunbide profesional edo lanbide honetan, horrek ematen dit poza; eta beti dago poz hori emango didan adibideren bat. Eta hori alaitasun handiz bizi dugu Hizkuntza Eskubideen Behatokian.





AITOR GALBARRIARTU

# ArgIHizkiak 2013

**II. ArgIHizkiak lehiaketa-erakusketako lanak dituzue orriotan. Erandio, Sopela, Berango, Leioa, Algorta eta Gorlizko 12 argazkilarik proposatutako irudien gainean, 90 parte-hartzailek idatzitako testuetatik onenak dira hauek. II. ArgIHizkiak erakusketa Uribe Kostako herri danetan ikusgai izan da, eta orain hemen duzue zuen gozamenerako... Horrez gainera, gogoratu, abian dela aurtengo III. ArgIHizkiak lehiaketa! Egun gitxi falta dira aurtengo ekitaldirako testuak bidaltzeko epea ixteko (ekainak 5); beraz, zabaldu begiak eta eragin eskuak...**

Info+: [www.argihizkiak.com](http://www.argihizkiak.com)

Argazkiak:

**Fede Merino, Aitor Galbarriartu, Elker Azketa, Iker Basterretxea, Eduardo Camino, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Willy Uribe, Sara de Diego, Nagore Ayo, Luis de Isusi eta Peru Isasi**

*Alderik ez: gizaki orok du jakingura. Geu ari gara kuxkuxean, denda barrukoa ikusi nahian? Ala eurek altxatu dute errezela, gu ikustearren? Batek daki!*

Aitor Fernandez de Martikorena

## ARGAZKILARIEK EZ DUTE OLES EGITEN

Oles egin gabe atera digu argazkia. Klik, klik, klik egin, eta laster joango da. Ez dugu jakingo nondik heldu den. Ez eta begi urdinak dituen ala gaztaina-kolorekoak. Eta guk gogoko dugu begietara so egitea. Etxera hurbiltzen zaigun atzeritarrari, Etorritakoari tea eskaintzea eta harekin imintzioka hitz egitea. Klik, klik, klik egiten dute. Eta badoaz. Ez al dute inoiz begiekin baizik begiratzen? Norentzat dira erretratu horiek guztiak? Zer kontatzen dute gure herriaz argazkilariek? Klik egin, eta joan da. Oles egin gabe. Gu Aisha eta Rashida garela. Esateko denborarik eman gabe.

Idoia Santurtun Castaños

Testu laburren  
**SARI NAGUSIA**

*Nola haren luma leunek haizea, hala laztantzen dute ene ametsek litekeen errealitatea.*

Naroa Elortegi Garcia

## AITORMENA

Errutinaren murruntzatik noa ihesi. Orain arteko garairik onena ez dela pentsatuko du askok, baina ekaitzaren aurretiko barealdia da hau, lehen baino lehenagoko momentua. Hegoak astintzekoa, hegan egitekoa, askatzekoa.

Lasai dabil haizea. Oraingoan bera da nire lumen artean irristatuko dena. Bera da, nire mugimenduei men eginez, dantzatuko dena; txotxongiloa bailitzan. Une honetatik aurrera, ni izango naiz harietatik tiraka arituko dena. Ni, soka guztien jabe.

Lainorik gabeko lausotasun honen erdian, argi ikusten dut zerumuga. Txoriaren hegaldia dator kit burura uneoro: ez da hegoak ebakiko dizkionik. Eta buru-barrua txoritzearekin batera txoratzeak ez nau beldurtzen. Azken finean, ez gara izaki hutsak.

Ane Ormazabal Ruiz



EDUARDO CAMINO

*Kale gorria.  
Patu beltza.  
Sosik gabe. S.O.S.  
Poz ohia. Pozoia.  
Itxaropena. Hits-ero-pena.  
Arrazakeria. Errazkeria.  
Gizateria. Gizarte eria.*

Galder Guenaga Garai

Testu laburren  
**SARI NAGUSIA**

*Irati Goikoetxea eta Jokin de Pedro epaimahaikook adosturik hartu ditugu erabakiak eta horren arabera goian aipatzen diren testuak sariz hornitzea ebatzi, 2013ko uztailaren 17an.*

## AIZARNAZABALEN ERE TXAKURRAK HANKA-HUTSIK

Denok bizitza duina omen!  
Ba, nik zer egiten dut hemen?  
Gauero lokartzean nire kartoizko etxean, ametsa bihurtzen da amets gaizto, etxe duin bat noizko?  
Politikoei ez diet sinesten hitzik, Singapurren ere txakurrak hanka-hutsik. Ni eta Mendi, elkar besarkatuz, biok lau xentimo madarikatuz. Lehen genuen telefono kabina, orain soilik dugu geure arima. Kalea geure habitat, bankeroek etxe politak! Munduan ba ote bihotz oneko aberatsik? Mongolian ere txakurrak hanka-hutsik. Batzuek burtsari so, besteek tankez eraso, gerrarako dirua soberan eta guk ezin urik ere edan!  
Krisi ekonomikoaren oasian gizatasuna dago krisian!  
Hau ez da ipuina, errealitatea baizik, Aizarnazabalen ere txakurrak hanka-hutsik!

Mikel Aiertza Etxabe

ELKER AZKETA







FEDE MERINO

*Horia, gorria; mea, kea; lana, beharra; bizitza eta heriotza; zurea, nirea... Geurea.*

**Armando Llamosas Rubio**



(Testu labur-laburren kategorian honetan jasotako testuak aztertu ondoren, epaileek erabaki zuten saririk ez ematea, eta antolatzaileek erabaki dugu lehiaketatik kanpo jasotako testu hau erakusketan jartzea)

(Testu laburren kategorian jasotako testuak aztertu ondoren, epaileek erabaki zuten saririk ez ematea)

*Zezena eta biok, lutorako jaiok,  
Biok minaren zauria alboan,  
Eta zezenaren modura, zure atzetik  
beti, nire nahia ezpata batean utzi  
zenuenetik.*

**Haizea Goñi Vidal**

JUAN GOMEZ

*Urrutiko Panpa-lezka, bertara eta kezka,  
Aurrerakuntzarako harrobia, mendion hilobia.  
Erdian, zelai bete ardi.  
Nora adi? Nork bere era:  
Begietara, aurrera,  
ala... gainbeheera.*

**Josu Larrañaga Arrieta**

(Testu labur-laburren kategorian honetan jasotako testuak aztertu ondoren, epaileek erabaki zuten saririk ez ematea, eta testu laburren kategoriako testu hau ere saritzea)

**ERALDATZEA**

Elkarregaz bagara gai burdina, arroka edo area itxuraldatzeko. Ez gara gauza elkarrekin gure pentsaera eta portaera inguruarekiko aldatzeko? Batera bizirauteko?

**Dabid Cascán Porben**

IKER BASTERRETXE



**ZENBAT BURU HAINBAT ARDIBURU**

Beenantxi duzue aurreko hau. Malenkoniak jota ibiltzen da, gaixoa, zer larre goxoak izaten ziren, lehenagoko zero zohardia, nola bakar-bakarrik gelditu garen, ez behi, ez asto aldamenen. Ardi ere ba ote garen galdetzen dio bere buruari artaldeko filosofoak.

Haraxeago, Beeelen dago, beti zelatan, kuxkuxero halakoa. Beenantxi lehengoarekin nola, Beeelen geroarekin hala: Arditurrikoek wii-a dutela, Artolan iphone bana, Ardisorotarak wii-a... beste konturik ez dauka.

Nik neuk ere ez dut buruhausterik falta. Merkataritza guneetan zorabiatu egiten naiz, asfaltoak amorrarazi egiten nau, harrobietako hautsak gaixotu, kotxeek izutu, landare inbaditzaileei alergiaz diet... izanaz Beeelartxo banaiz ere, izenez Beeetsy nauzue klonatu nindutenetik.

**Josu Delgado Rozas**

**AtsEden**

*Bidaia luzatzen ari dela-eta, ilargian atsedean hartzea erabaki dugu. Nahiz eta eguzkiak gogor jo, espazioautoen parean geratu gara, kalaka inozoak freskatuta.*

**Alex de Isusi Garcia**

(Testu laburren kategorian jasotako testuak aztertu ondoren, epaileek erabaki zuten saririk ez ematea)



LUIS DE ISUSI

**ORATZE PUNTUAK**

*Ez da behar argirik iparra galtzeko; ardatzik gabeko koordenadetan itotzen baita gizaki askea. Hargatik, amildu edo altxatu perspektiba kontua baino ez da.*

**Igor Mercado Azcuenaga**

**KAIA**

Badakizu hor izana naizena baina zu heltzerako nire lurrinaren arrastoa soilik geratu da bertan. Ez naiz gehiago itzuliko. Ez naiz sekula bueltatuko. Eta nire lurrinak ere Eginen du Egunen batean lhes

Damuaren antz handia duzu: Beti heltzen zara berandu.

**Ariane Ensunza Aldamizetxebarria**



NAGORE AYO





(Testu labur-laburren kategoria honetan jasotako testuak aztertu ondoren, epaileek erabaki zuten saririk ez ematea)

NATXO PEDROSA

Zoriontasuna detaile txikietan dago, ilunabarrak, eguna amaitu dela baino zerbait gehiago adierazten du. Ilunabarraren ostean, gauaren distirak, eguzkiaren izpiak amaitzerakoan du bide, egun bat gehiago egun bat gutxiago da.

Ane Bilbao Retolaza

*Begirada galduta, leihoaren bestaldean, ezin dituzu igarri nire maitasun keinuak. Nor da buruan duzun hori, nor da nire edertasun guztia lausotzen duena?*

Haizea Goñi Rodriguez

**ALDARRIA**

Horma bat. Eraikin miserablea. Negozio zen, eta izateari utzi zion. Utzi egin zuten. Hutsik laga zuten. Funtzioz gabetuta. Funtsean, desjabetuta. Abandonatuta. Abandonatu gaituen ekonomiak sortutako hondakin garbia. Baina zikina. Klinexaren parekoa. Gizartearen isla.

Horma duina zen, baina erantzi zioten duintasun-soinekoa. Gobernatuta zegoen, baina jantzi zioten desgobernua. Horma funtzionala zen, baina erantzi zioten disfuntzioa. Horma ederra zen, baina eraitsi zuten dotorezia. Dohainak zituen, baina dohakabe izatera kondenatu zuten. Negoziaren izenean.

Erreskatea behar du. Bilaka dezagun urregorri. Erantzi balio soziala. Bihurtu kiroldegi, zahar etxe, haurtzaindegi... Ken etxe-jabeari; eman etxegabeari. Pribatutasunaren horma eraitsiz. Publikotasunaren azulejuekin apainduz. Legitimoa baita.

Aldarría idatzita dago... Gauzatuko dugu?

Abel Irizar Mantzidor

PERU ISASI



SARA DE DIEGO

*Askatasuna ere preso dagoela salatu digute begiek. Ilusioak estaltzen dizkigute herdoildutako hesiek. Harriz estali digute bidea amesteari uko egiten diotene.*

Irati Urkiola Irigoien

**KARTZELA**

Harriak eta herriak barruan. Harrak eta herrak kanpoan.

Kartzelan.

Zenbat orru.

Zenbat amorru.

Zenbat amarru.

Zenbat hots hotz.

Zenbat hitz hits.

Zenbat hauts huts.

Zenbat zigor.

Zenbat ziega gor.

Zenbat muzin.

Zenbat ezin.

Zenbat zin.

Zenbat min.

Gero eta ugariago eta ageriago.

Kartzelan.

Trebatu nahi, eta trabatu.

Iziotu nahi, eta izutu.

Kartzelan.

Garaipenetik penaren garaira.

Kartzelan.

Askatasuna gurtu.

Duintasuna agurtu.

Etorkizuna agurtu.

Goizalde Hernando Saratxaga

WILLY URIBE



*Emazkidazu klariona pare bat, mundua marraztuko dizut. Ez esan zelakoa den. Idazmahaien pean bizi denak ez du meridianorik. Mundu naiz. Zaude isilik une batez eta utzi klariona pare bat.*

Eñaut Uruburu Martinez

Kukubilko mutil koxkorra hankapea duelarik altxorra eta zero azpia uharte lehorra. Mundua da goitik begiratzen diona baina bere eskuetako klariona da zoriona dariona lurrari galdetuz: zer da biona? Irribarrea dario irudiari, esku ahur eta haur eskuari mundu ziniko honi zimiko bi eguzki koloreko jantzi hori; Kendu dioten mundua irudikatzeo segundua hartu du, ta ongi landua dago hauts zuri birrindua. Lurra da ispilu leial haurraren jolasen azal eta irribarrearen isla zabal aberatsenak ere bere urre eta oihal ezin duena marraztu ahal!

Amaita Agirre Arrastoa



## Uribe Kostako interesgune geologikoak

# Harriek milioika urtetako historia kontatzen dutenean

**Armintzako flysch beltza, Astondoko dunak eta Meñakozeko arroka bolkanikoak. Uribe Kostan hainbat interesgune geologiko aurki daitezke, askorentzat ezezagunak direnak, baina lurraren sorreratik bere horretan egon direnak eta horren historia guztiaren erregistroa biltzen dutenak.**

**Nahiko** ezaguna da Euskal Herriak duen ondare geologikoa erreferentzia dela nazioarte mailan, izan ere, Deba-Zumaiako *flysch*-a “*Lurraren historiako mundu-erreferente*” gisa izendatu zuen Estratigrafiaren Nazioarteko Batzordeak, Añanako Gatzaga Gizateriaren Ondare izateko aurkeztu zen, eta Pozalaguako kobazuloa Repsol gidako txokorik onena izendatu zuten iaz. Hala ere, Uribe Kostak ere interes handiko hainbat gune hartzen ditu. Horietan, Iñigo Ruiz UK Geodibertsitateko kideak jakinarazi duenez, dinosauroak desagertu ziren toki zehatzak (K/T limitea), hainbat dinosauroren aztarnak, fosilizatutako dunak, Bizkaiko *flysch*-a eta “*euskal geologok deritzogun gure Sixtina Kapera*” dira, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzaren Geodibertsitate-Estrategia 2020k zehazten duenez, eskualdeak 9 IGG (Interes Geologikoko Guneak) ditu: Urtikoetxe punta, Billano lurmuturra, Barrikako tolesguneak, Meñakozeko Pillow labak, Sopolako K/T limitea, Armintzako *flysch* beltza, Astondoko dunak, Barrikako hareatzak eta Gorrondatxeko eozenoa.

### Urtikoetxe punta

Urtikoetxe oso ezaguna da Azkorriagako gotorlekua hartzen duelako bere puntan.



Barrikako itsas-labarren ikuspegi orokorra

Baina, XVIII. mendeko eraikin defentsiboa hartzeaz gain, eremu horrek aberastasun paleontologiko handia du. Izan ere, eraikina egin zuten tokia arrezifalen eta

## Uribe Kostak 9 IGG (Interesgune Geologikoko Guneak) ditu

bioeraikuntzen aztarnak dituen plataforma karbonatua da, 100 milioi urte baino gehiago dituen. Horretaz gain, Billano lurmuturrean eta Ermua mendian hainbat dinosauroren aztarnak aurki daitezke.

### Billano lurmuturra

Zonalde honek Europako plakaren hegoaldeko aktibitate tektoniko sakonaren lekukotasuna hartzen du. Horrez gain, garai batean burdinaren mineralizazio-har-

tzailea izan zen paleokarsta aurki daiteke. Gaur egun, burdina oxidoak daude bertan, baina mineralizazio hori ustiatu zuten joan den mendean.

### Barrikako tolesdurak

Lurmutur horien azaleratzeen kalitatea oso handia da. Valentin Deunako Haitzetik Kurtziopeko puntaraino doan lurmutur zatian hainbat egitura daude: tolesdurak, zamalkadurak, eskama tektonikoak eta duplexak, besteak beste. Aipatu estrukturak Zenomaniense eta Turoniense garaiko materialez osatuta daude.

Txitxarropuntan tolesdura angeluarrik dauzkagu, eta iparreko amaieran ziri tektoniko bikoitza suma daiteke, laminatuta eta tolestuta iparreko fase tertziarioaren eraginez. Hala, horrek erakusten du tolesduren egituretan interferentziak egon zirela.



Barrikako tolesdura ikusgarriak

Azkenik, Goikomendiazpi kalan chevron motako tolesdura angeluar ikusgarriak daude. Zonalde horri “*tolesdura angeluarren Sixtina Kapera*” izena ematen diote geologoek.

### Armintzako Pillow labak

Armintzako hondartzan dauden labak Kantauri isurialdean aurki ditzakegun Goi Kretazikoaren garaiko bulkanismoaren kolada esanguratsuenetakoa dira. Azaleratze horiek bereizgarriak dira lurmuturrean dauden kuxin-formako labenga-

## Billano lurmuturrean hainbat dinosauroren aztarnak aurkitu daitezke

tik, Pillow deritzenak. Horien ondoan daude ammoniteak.

### Sopolako K/T limitea

Kretazikoaren eta Paleogenoaren arteko muga adierazten du Sopolako K/T limiteak. Oso interesgarria da garai horretan Lurrean jazo zen krisi biologikoa ikertzeko interesgunea delako. Gehienbat itsas-fosilak aurki daitezke bertan, baina baita hainbat mikrofosil ere.

txarro errearen ibarra. Dunen ekosistemak oso bitxiak dira, eta Astondokoek aiparteko balioa dute. Itsasoaren indarrak eta iparraldeko haizeek duna horiek sortu zituzten, eta horien artean, zementatutako edo fosilizatutako dunak nabarmendu behar dira. Duela 6.000 urte baino gehiago sortu ziren, harearen sedimentazioaren eta petrifikazioaren eraginez.

## Sopolako K/T limitea mundu mailan gehien bisitatutako azaleratzea da

### Barrikako hareatzak

Zabalatxeko hareatzak Barrikan azaleratutako marearteko zabalgunea fosilizatzen du. Jakin denez, itsas maila baxuko garaian haizeak sortutako harea-depositoa da.

### Gorrondatxeko eozenoa

Getxoko Gorrondatxe hondartzan azaleratzen diren materialek 5 milioi urteko historia azaltzen duten *flysch* sedimentazioa aurkezten dute. Horrez gain, Lutezienseko estratotipoak dituelako da garrantzitsua IGG hau. ○

Astondoko duna fosilizatuak







**BETIKO**  
IKASTOLA

**Kalitatezko irakaskuntza euskalduna**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GARRIKO**



GIZONENTZAKO  
MODA

**Zabala 9**

ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Jambo Amani? lanari Remia Unai Aranzadi Ormaetxea getxoztarrak zuzendutako dokumentala saritu dute



Filmaren aurkezpen laburra: [youtu.be/Vd5zr3Gji4k](http://youtu.be/Vd5zr3Gji4k)

**Aurreko** zenbakian (UK251) elkarrizketatu genuen Unai Aranzadi Ormaetxea kazetari eta errealizadore getxoztarrak; oraingoan zorientzea dagokigu! Izan ere, bere *Jambo Amani?* (Bakea badago?) dokumental laburra (29 min.) Zilarrezko Remia jaso du Houstoneko (AEB) 47. Nazioarteko Zinemaldian; munduko jaialdi independente zaharrena da hori. Aranzadik zuzendu eta muntatu du lana, bera kide den Suediako Independent Docs etxeak eta Unesco Etxeak ekoiztu dute, Getxoko Udalaren garapen-sentsibilizazioko diru laguntza jaso zuen horretarako; suahilia, frantsesa, ingelesa, bertako hizkuntzatan egin da (gaztelera azpigituluakaz).

Orain dela urtebete jaioterrian aurkeztu zuenetik, mundu osoko ia hogei zinema jaialditan parte hartzeko aukeratu dute getxoztarraren lana, esaterako Black International Cinema Berlin jaialdian eta bere berbatan: *“bost kontinente-luze eta zabalean, Bogotatik Sydneyra,*

*eta Luxorretik Helsinkira, eta Jaipurretik zein Kievetik igarota”*.

Kongoko Errepublika Demokratikoan kokatzen da historia, Aranzadik azaldu legez: *“2008ko udagoienean, gerrako fase gordinean, CNNko kazetari gisa egon nintzen (...) Lanak gai bi jorratzen ditu, azken ondorio batera heltzeko; bata, Kon-*

**“Ondorioa: ez da bakerik egongo, ez Kongon ez inon, justizia sozialik ez dagoen bitartean”**

*goko Errepublika Demokratikoko gerra da, bost milioi hildako eragin dituen; bestea, desmobilizazioa, desarmatzea eta FDLRko milizianoen usteko birgizarteratzea. Ondorioa da sekula ez dela bakerik egongo, ez Kongon ez beste inon, justizia sozialik ez dagoen bitartean (...) Gai orokorra da, horren bitartez europarrak afrikarrakaz bat etor daitezke: herrialde horietako pertsonengan pentsatzean gizatasuna kentzen diegu eta horregaz apurtu gura nuen”*. ○

## Eta aukeratuak dira...

Leioako **Pop Rock Lehiaketako** finalean jardungo duten taldeak aukeratu dituzte



Tight Leash talde bilbotarra da finalean lehiatuko denetako bat

**Ohi legez,** San Juan jaietan egingo da Leioako XIV. Pop Rock Lehiaketako finala (eguna oraindino ez dute zehaztu), eta horretan zuzeneko eskainiko duten taldeak daborduko aukeratu dituzte. Parte hartu duten 78 taldeetatik, atalka, hauek dira finaleko lehiakideak: Metal alorrean, Tight Leash (Bilbo) eta Darmage (Zaragoza), eta Pop Rock arloan Kilauea (Atxondo) eta The Electric Alley (Cadiz). Atal bakoitzeko irabazleak 1.600 euroko saria jasoko du, eta Leioako XIV. Pop Rock Lehiaketako Irabazle Orokorra Saria *“kategoria ezberdinetan saritutako taldeetako onenari emango*

*zaio, 400 euroko ordain-sari gehigarriarekin. Gainera, maila bakoitzeko talde irabazleen bina abesti jasoko dituen CD bat grabatu eta editatuko da, 600 kopia egingo dira, 100 musika arloko profesionaleri bidaliko zaizkie eta gainontzeko aleak talde irabazleentzat”*.

Horrez gainera, beste sari bi banatu dituzte: batetik, Elbereth (Gipuzkoa) taldearen *“Egin bedi zure nahia”* kanta eroan du Euskarazko Abestirik Onena Saria, edo Euskara Zerbitzua sari berezia (600 €); bestetik, Herriko Talderik Onena Saria, Leioako Udala saria (600 €), The Hooks taldeari emon diote aurten. ○


## diskoak

**The Arty Sessions**  
Viva Bazooka  
Autoekoizpena



Lan bi aurkeztu barri ditu Rafa Bataglia paraguaiarrak (bateria) eta Hasier Amaiah gasteiztarrak (gitarra) osatzen duten Viva Bazookak. Bata, *Bum! Bum! Brazil!*, lan laburra da: 4 abesti jasotzen ditu; bestea, *The Arty Sessions*, sarean ipini dute entzungai, eta Artyom Mikhaylovskiy baxu-jotzailea lagun dutela hiru abesti batzen dituen lan esperimental da.

**Arrakala**  
Kashbad  
Bonberenea Ekintzak



la 15 urteko etenaren ostean, taldea betiko desegin zela sinetsi genuenean, zortzi abestiko diskoa (eta bonus track bat) plazaratu dute Kashbadekoek. Halere, ez da epe luzeko itzulera; uda-udagoieneko kontzertu-bira amaitutakoan jotzeari utziko diote atzera ere. Taldearen laugarren lana *Arrakala*.

**20 urte zuzenean**  
Betagari  
Maldito Records



Hilabete hasieran aurkeztu zuen Gasteizko taldeak 20 urteko ibilaldiaren printzak jasotzen dituen diskoa. Urteurena ospatu guran, pasaden udan Gasteizen, Bilbon eta Donostian emondako kontzertuetan zuzenean grabatutako lana plazaratu dute. Lana merkaturatzeko oraingoan Valentziako Maldito Records zigilua aukeratu dute gasteiztarrek.

## jaialdia > Usopop5

*“Bosgarren urtemuga ospatzeko tenorea etorri da. Sarako gaztelua, liburutegiko parkea edo kapera ezagutu eta, begibistakoa zen ohantzerantz itzuli behar genuela, oihanera. Izan ere, Usopop5 festibala, probintzien elkargunea den Lizarrietako lepoan iraganen da maiatzaren 31n arratsaldeko 15:30etik goiti”*. Egitarauari dagokionez, ondoko taldeak izango dira: Mobydick Band, Musikolore (Haurrentzako Ikuskizuna), Anari & Aguxtín Alkhat, Kid Wise, Sebastien Schuller, Vie Sauvage Set eta Abereen Dantza. Hala, horrenbestez, Usopop jaialdirako zita: Sara (Lapurdi) herriko Lizarrietan, hilaren 31n.

Info+: [www.usopop.com](http://www.usopop.com)

## diskoa > Aixerrotako ikasleak

Aixerrotako (Getxo) DBH 4 eta 2. Batxilergoko ikasleek musika eta bertsoari buruz buztartzen dituen egitasmoa CDra batu dute: *“kantu ezagunak aukeratu ditugu eta horiei letra berria jarri diegu”*. Besteak beste, jorratzen dituzten gaiak hauek dira: *“LOMCE-legea, murrizketak, maitasuna, berdintasuna, Alzheimer-a e.a”* Aurten gainera *“berrikuntza moduan, ikasleek jotzen dituzten instrumentuak erabili ditugu kantutok taularatzeko”*. Azaldu legez, *“2012-2013 ikasturtean Munduko Bertsoari buruzko proiektua martxan jarri zen: bertsoari buruzko laguntza, kantuak sortzea”*. Iaz 4 kanta sortu zituzten, aurten 17; aurrekoan moduan, Oskar Estangaren laguntza izan dute, eta koordinatzaileak Itsaso Gonzalez (musika-irakaslea) eta Nahikari Ayo (bertsoari buruzko irakaslea) izan dira.





## Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko** deskontua  
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

# I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

### Algorta

[literatura]

## Literaturia Zarautzen

Aurten **maiatzaren 28tik ekainaren 1era**, euskarazko literaturaren gaineko topalekua

**Seigarren** ekitaldia Zarautzen egingo du Literaturiak. Larrabetzuko Literatura-Eskolaren barnean sortutako ekimenak Larrabetzun antolatu du bost urtez euskarazko literatura topaketa; herritarrei eta laguntzaileei urteotako babes eta lana eskertu ostean, antolatzaileen esanetan: *“mugarria finkatu ostean, are gehiago zabaltzea dagokigula iruditu zaigu. Gure uste harroan, euskarazko literaturak bere adierazpide anitzetan, asteburu baterako proposamenak ditu, baita askoz gehiagorako ere”* (...), *“Larrabetzu baino plaza egokiagoa behar du: Literaturarekin harreman estua izango duena; bertako lan-taldea sortzeko aukera eskainiko diguna; ekitaldiak antolatzeko beharrezko azpiegitura izango duena; salmentan eragin nabarmena izan eta*

**«Mugarria finkatu ostean, are gehiago zabaltzea dagokigula iruditu zaigu»**

*argitaletxeen urteko argitaratze egutegia baldintzatuko dituen; dirulaguntza eskarretan itoztera behartuko ez gaituena; erakunde publikoen neurriko babes izango duena, (...); zaleentzat eskura dagoena (garrario eta ostatu aukera anitzen eskaintza)”*.

Egitarauak, besteak beste, hau iragarri du: maiatzaren 28an Herri 1, 11 irakurle



Info+: [literaturiazarautz.wordpress.com](http://literaturiazarautz.wordpress.com)


eta literatura (Torre Luzea parkea); hilaren 29an Harri eta Herrik 50 urte hitzaldia (19:00, Yubionea); hilaren 30ean: *Literaturra* antzerkia (18:30, Musika plaza), Etxepare Rap/Imanol Epelde/ Bide Ertzean (19:00, Modelo aretoa), Petti (23:00, Barley taberna); hilaren 31n: azoka (Zigordia plaza), Inpromatxa (13:00, Putzuzulo gaztetxea), Xabier Montoiaren mundu miresgarria (19:30, Marina Txiki), *Gabrielen Lekua* sentikaria (22:00, Modelo aretoa); ekainaren 1ean: Hodeien Adorea (13:30 Marina Txiki), *Urak ttiki dire* antzerkia (17:30, Sortaldea), poesia erreztaldia kolektiboa (18:30, Sortaldea) e.a. o

liburuak



**Mihia aske**  
Elias Canetti  
Igela / Erein

Elias Canettiren (Bulgaria, 1905–Zurich, 1994) autobiografia-obraren lan bat ekarri du euskarara Ibon Uribarrik, Literatura Unibertsala bilduma osatuz. Oroimenean eraikuntza du jorragai, eta liburu honetan gaztaroaren kontakizuna egiten digu: hamasei urte bete zituen artekoak ditu berbagai.



**Zangotraba**  
Juan Cruz Igerabide  
Erein

Adiskidetasuna eta traizioa trama ilunaren muina dira; ez da umorerik falta. *“Protagonistak bizitza doblea darama: aduanetako langilea da Joxe, detektibea Juan Fernandez, maitasun-kontuetan espezializatua. Biak dira bat eta bera? Edo gizakiaren sakoneko nortasun konplexuak mintzo da?”*

[kirola]

## Lasterketa solidarioa

**Maiatzaren 24an** lehiakorra ez den proba egingo dute **Getxoko Portu Zaharrean**



200 bat emakumek parte hartu ohi dute lasterketa horietan

**Maiatzaren 24an**, zapatuan, *#mujeresquecorren* izeneko mugimenduak herri-lasterketa egingo du Getxon. Aipatu proba ez da lehiakorra izango. Izan ere, horren helburua emakumeen artean *running*-a sustatzea izango da.

Lasterketa horren urteera eta helmuga puntuak Algortako Portu Zaharrean izango dira, eta hiru ibilbide egongo dira aukeratan, 7, 5 eta 3 kilometrokoak, hurrenez hurren. Lasterketa guztiak 10:30ean hasiko dira.

*#mujeresquecorren* sare sozialetan sortutako mugimendua da, eta daborduko 23.000 jarraitzaile baino gehiago ditu. Mugimendu horrek Uno Entre Cien Mil fundazioari babes ematen dio; azken horrek haurren leuzemia ikertzeko funtsak batzen ditu. Hala, inizatiba horri laguntza eskaintzeko, lasterketan parte hartzeko zerbakia fundazioaren webgunean erosi beharko da, euro baten truke: [www.uno-entrecienmil.org](http://www.uno-entrecienmil.org).

Aipatu mugimenduak hilean behin

Info+: [www.mujeres-que-corren.com](http://www.mujeres-que-corren.com)

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda




**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA



**Koldo Guemes Izurieta** > Malta

“Bizi-kalitatea paregabea dela ohartu nintzen”

Maltako hiriburutik (Valleta hiria) oso gertu bizi da Koldo Guemes Izurieta sopoloztarra, iragan irailetik. Zergatik? Lanerako aukeragatik: internet bitartez topatu zuen lanpostua eta Mediterraneo uharte berezian lan egiteko aukera eskaini zioten. Dioenez, hizkuntza ofizialak dira maltesa eta ingelesa, baina *Espanglish* apur bat jakinda erraz komunikatzen da. Soldatak ez dira paregabeak eta lan-baldintzak normalak dira, baina lan-eskaintza oso handia da Euskal Herriagaz alderatuta. esperientzia barria izaten ari da, eta italiara zein maltera ikasteko aukera ere badauka.



#### Zer bisitatu eta zer ez galdu

Hiru uharte nagusik osatzen dute herrialdea: Malta, Gozo eta Comino (lehenengo handiena, beste biak txikiak). Guztiz gomendagarria da hirurak bisitatzeko: Comino, hondartzengatik eta itsasaren koloregatik; Gozo, naturarengatik eta herritxo dotorengatik; eta Malten Valleta hiria ezagutu behar da, baina ikusi beharreko beste hainbat leku dago: Hagar Qim tenplua (munduko tenplurik zaharrena), Dingliko itsaslabarrak (naturaz gozatzeko), Marsaxlokk arrantzale-herritxo txikia (arrain feskoa), Mdina (Maltako lehengo hiriburua), e.a.

#### Kontuz!

Guemesek dio Malta nahiko segurua dela eta lasai ibil daitekeela, baina errepidean kontuz joan behar dela, ezkerreko erreiletik gidatzen dutelako. Gainera, errepideak ez ei dira batere onak eta zaila

da zebra-pasaguneak aurkitzea. Bere gomendioa: trafikoagaz erne ibiltzea.

#### Harritzeko modukoa

Sopoloztarraren lehen inpresioa nahiko arraroa izan ei zen. Leku oso kaotikoa iruditu zitzaion, trafikoagatik batez ere, eta eraikuntza guztiak hori kolore zaharritua zeukatela iruditu zitzaion. Baina lehen unetik jende eskuzabala ezagutu zuen, baita bizi-kalitatea paregabea dela ohartu ere, besteak beste, mediterranean eguraldiagatik.

#### Zer jan... eta edan

Gastronomiak Italiako sukaldaritzaren eragin handia dauka, baina badira gauza bereziak ere: bigilla (indabakaz egindako pate modukoa), pastizzi (hostore modukoa, gaztagaz), cannoli eta figolla (pastel tipikoak), eta untxia edo lur-barraskiloa Maltako ohiko eran. ○



#### Nor da

**Nongoa**  
Sopelakoa

**Adina**  
25 urte

**Zertan dabil**  
Bulego batean lan egiten du, salmenta saillean

**Ikasketak**  
Enpresa-ikasketak

**Noiz arte**  
Irailetik bizi da Malten eta Euskal Herrian lanpostu hoberik ez badu topatzen bertan lotzeko asmoa dauka

#### Non dago

**Lurraldea**  
Maltako Errepublika (Mediterraneo itsasoko uhartedia)

**Hiriburua**  
Valleta (Malta uhartean)

**Azalera**  
316 kilometro koadro

**Kokapena**  
Hegoaldeko uhartean

**Biztanleria**  
452.215

**Hizkuntza**  
Maltera eta ingelesa

**Dirua**  
Euroa

**Erljioa**  
Katolikoa (%98)


## Eduardo San Andres

**Zientzia atala** abiatu dugu, Jentilkoba atalagaz txandakatuko dena; hilean behin. Bertan agertuko diren testuak **Eduardo San Andres** matematika-irakasle sopoloztarrak idatziko ditu; zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu


# Bidaiak denboran zehar (II)

**Aurrekoan Joana utzi genuen 184 urte etorkizunean, erabat ezezaguna suertatzen zitzaion mundu batean, noraezean eta izututa. Lortuko ote du bere garaira bueltatzea? Posible izango ete da iraganera ere bidaiatzea?**

**Izar bat** gasez (hidrogenoz, nagusiki) osatutako esfera erraldoia da, bere barnean etengabeko fusiozko erreakzio nuklear bat gertatzen ari delarik. Erreakzio horren ondorioz energia kantitate itzela sortzen da, eta argi eta bero erradiazio formarekin askatzen da. Erradiazio horrek izarra kanporantz modu erradialean hedatzeko joera dauka, baina kanporantz bultzatzen duen erradiazio-indar hori kontrajarria geratzen da grabitazio indarrarekin, izarra uzkuertzeko joera duena, hain zuzen. Eta sokatira kosmiko eder horrek berdintuta dirau.




Milaka milioi urtetan zehar, kontrako bi indar horiek orekatuta daude eta izarra egonkor mantentzen da. Baina erregaia (hidrogenoa) agortzen denean, grabitazio indarra menperatzen hasten da. Horren ondorioz izarra uzkuertzten hasten da bere masa guztia izugarritzko dentsitatea daukan esfera txiki batean kolapsatu arte. **Zulo beltza** deituriko egitura da hori.




Zulo beltz baten balizko irudia

Einsten-en erlatibitate-teoria orokorra unibertsoaren egitura espazio-tenporala azaltzeko eta ulertzeko saiakera bat da. Eman dezagun unibertsoa maindire elastiko bat dela. Bere gainean **M** masa bat kokatzen badugu (adibidez planeta bat edo izar bat), masa horrek deformazio edo tolesdura bat sortuko du maindieran, eta horrezker, beste masa bat, **m**, bertan kokatuz gero, beste masa horrek indar bat jasango du espazioan deformazioa sortu duen masarantz: indar grabitatorioa da. Labur esateko, eremu grabitatorioak espazio-denboraren deformazioak dira.



Baina deformazio hori sortzen duen masak tamaina nahiko txikia eta masa itzela baldin badauka (adibidez, **zulo beltz** bat)

maindiera urratu ahal izango luke zulo bat eginez. Kontuan hartzen badugu maindiera unibertso osoa dela, nora joango ginateke zulo horretatik sartuko bagina?



Fisikari batzuen ustez, zulo horiek unibertsoaren espazio-denboran puntuak konektatzen dituzte, lasterbideak izanik, eta eredu horren arabera unibertsoa *gruyere* gazta bat bezala izango litzateke, pasabideek zeharkatuta. Pasabide edo tunel horiek zizare zuloak izen bitxiarekin dira ezagunak. Beharbada Joanak iraganera itzultzeko lasterbidea izar baten gorpu ilun eta superdensoan bilatu beharko luke. Zorte on, Joana. ○

OHARRA: Aurreko testuan "XII. mendean" beharrean, "XVII. mendean" da.



[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

Zure publia  
hemen agertzea  
gura baduzu

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**



**PINTXOAK**  
**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:**  
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK**  
**ENKARGUZ**

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



**Hanburesak** **Ogitartekoak**  
**Sanwichak** **Plater konbinatuak**

**SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO**  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli  
**mota gane Tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
**94 430 01 74**  
www.bodeguillabutron.com



But batean eginda japoniar era tradizionalan  
www.fugulusarenas.com

Evaristo Churrucua Kaia 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO  
**944 808 796**  
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa



**GOSARIAK**  
**PINTXOAK**  
**KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA**  
**SOPELA**  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



**Menu ederra itsasoari begira**

Tf. 94 677 41 33  
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA  
www.restaurantekaieder.com



Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com

Zure publia  
hemen agertzea  
gura baduzu

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

Zure taberna edo jatetxea  
hemen agertzea  
gura baduzu  
ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

## Urraburu aburi sushia

Japoniako tradizioetan oinarrituta



Ettxera eroateko hainbat sushi-plater prestatzen dituzte Fugu jatetxean

**Ekialde** urrunetik ekarritako zaporeakaz jarraituko dugu gaurkoan ere, Areetako Fugu jatetxearen eskutik. Aurrekoan ekarritakoak bertoko izena bazuen ere, oraingoak izen ezin dotore eta exotikoa-goa dakar: urraburu aburi sushia. Jaki ospetsu hau dastatzeko Bizkaiko Zubiaren ondoko arkupeetan dagoen jatetxera joatea besterik ez dago, 3,5 euroren truke eta etxera eroateko. Hala ere, plater hori norberak egiteko eman beharreko pausoak ekarri ditugu gurera.

Sushi hau prestatzeko, ohi bezala, lehenik eta behin arroza hartu eta ondo egosi beharko dugu. Bitartean, urraburu gordin bat hartu eta xerra mehe bitan ebaki, 12 gramo ingurukoak. Ondoren, arroza sukaldatuta dugula, eskuetan apur

bat hartu eta bola luze bi egingo ditugu. Hori egiten dugunean, urraburuaren bi xerrak hartu eta bi bolak estaliko ditugu horiekaz. Hurrengo pausorako, sukaldeko soplete bat erabili beharko dugu urraburuaren goiko partea ondo txigortzeko.

Ekialde urrunean inspiratutako modu kadu hauen sekretua saltsan oinarritzen da. Hori dela eta, aburi sushia amaitutzat eman baino lehen, aingiraz egindako saltsa gehitu beharko diogu. Saltsa hori etxean egin genezake, baina denda berezietan aurrez egindakoa ere eskuratu ahal izango dugu. Hala, azken ukitu hau emonda, Japoniako jaki ospetsu hau etxean dastatzeko aukera izango dugu. o

**Osagaiak: arroza, urraburu gordina eta aingira-saltsa.**



JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO



MONIE JAIA 1  
48993 GETXO (BIZKAIA)  
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM

94 460 86 48

**JUAN-MARI**



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI**




**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berrí**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torreña 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxerriak  
Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO

Kopiak  
**SALGAI**

UK aldizkariaren bulegoan

**GETXO 2**  
AKORDATEN NAZ  
www.ukaldizkaria.biz  
URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA 2014 UK  
DVD  
URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA 2014 UK

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena **uk**

[horoskopoa]

<p><b>URA</b></p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Aupa, ikasle! Fin zabilta eta uste baino emaitza hobekak lortuko dituzu, ziur egon. Gixi falta da azterketak amaitzeko eta, beraz, animo. Eutsi goiari!</p>	<p><b>OTSOA</b></p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Inauterietako lehen saria irabazi zenuenez bidaia egiteko aukera daukazu datorren astean, baina ez dakizu nogaz joan. Lasai egon, boluntariorik ez duzu faltako-eta.</p>	<p><b>ADARRA</b></p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Udarako hilabete falta da baina zu beltzaran baino beltzaranago zaude daborduko, zelan egiten duzu? Solarium batean egon zara edo zaparentzako betuna emon duzu?</p>
<p><b>AITZURRA</b></p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Hondartzatik paseatzen zoazela botila bat topatuko duzu isasertzean, barruan mezu duela. Irla batean galdutako norbaitena da baina, nahiko du zuk erreskatatzerik?</p>	<p><b>HOSTOA</b></p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Gurasoek enkargu bat egingo dizute eta supermerkatua joango zara. Hainbeste produktugaz nahastu eta garestiena erosiko duzu. Prestatu, a zer errieta egingo dizuten!</p>	<p><b>EGUZKIA</b></p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Eguraldi ona dela-eta animatu zara eta bizikleta atara duzu. Egutero zoaz lanera bizikletaz, gero eta azkarrago. Aizu, lasai ibili, Euskal herriko itzulia aspaldi amaituta dago-eta.</p>
<p><b>GARIA</b></p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zein polita daukazun etxea, landarez eta koloretako lorez beteta! Auzokideek, ordea, bekaizta daukate eta edozer egin dezakete: kontuz ibili, ez utzi etxeko atea zabalik...</p>	<p><b>LASTOA</b></p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Gaur bokata, bihar pizza eta etzi hanburgesa. Zoriontsu zara dieta "zorrotz" horregaz, baina zure burua hobeto zaindu beharko duzu, bihotzkoak emon baino lehen.</p>	<p><b>IRATZEA</b></p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Baimen barik jolasean ibili eta amamaren pixter bat apurtuko duzu. Haserretuko da eta aste-sariagaz ordaindu beharko duzu. Hurrengoan ez duzu tontokeriarik egingo...</p>
<p><b>META</b></p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Aspaldi zaude gustatuta ezagun batez eta asteburuko parranda baliatuko duzu berarengana hurbiltzeko. Baiezkoa edo ezekoa jaso bost axola, hark gura ez badu beste norbaitek gurako du-eta.</p>	<p><b>HAZIA</b></p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Urtero legez, euliak iritsi dira zure etxera eta luze lotzeko asmoa daukate. Badakit animalia-zalea zarena baina, faborez, erosi intsektizida odol guztia xurgatu baino lehen!</p>	<p><b>NEGUA</b></p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Musika-talde barriagaz lehen kontzertua daukazu laster, baina eguna iristean ahots barik alxatuko zara. Askok esan zizun bezperan parrandarik ez egiteko, baina zuri bost. Eta orain, zer?</p>

Ahoa  
beroa,  
  
boltsea  
hotz.

Laura Sales 2014

**URTEAN 20€**

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki  
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri  
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure ebtean  
Urte osoan argazki zahar eta barriak  
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara  
Urtean 20 euro


**uk** Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz **uk** **uk** URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Pluralean, ogi bigunagaz egiten diren otartekoei deitzeko hitz ingelesa. 2. Gizon izena. Ertamerikan hazten den hosto iraunkorreko zuhaitza, oso zur preziatua duena. 3. Zigoitiko kontzejua eta auzoa. Ipar Euskal Herrian, oso, txit, erabat. 4. Nor eta nork deklinabide kasuen atzizkia. Ikara. 5. Hegazti harraparia. Kontsonante bikoitza. 6. Lehenengo bokala. Su eman, piztu. 7. Sasoi. Arratoiaren antzeko ugaztun karraskari. 8. Istua, txitua. Egitekoak, arazoak. 9. Zarpatsu, baldar. Interjekzioa. 10. Antzinaldia, antzin aroa.

Goitik behera

1. Sumatzen zail den hura, hautemangaitza. 2. Irungo auzoa, Txulapaingo kontzejua eta lekua. 3. Nauka. Erdaraz, Bidarte herriaren izen ofiziala. 4. Distira, dirdaia. Euskal fonema. 5. Kontsonante arrotza. Garatzera behartu, garatzera eraman. 6. Dardaraz, izuz. Mehe, xehe. 7. Kaltzioaren ikur kimikoa. Motor mota, nagusiki gasolioz dabilena. 8. Leku honetara. Errepikatuz, barrea adierazteko. Tona hitzaren laburtzapena. 9. Aberririk ez du. 10. Katu ar. Ukapena.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein sari emon diote Fede Bilbaori?

Zer kolore ematen zaie Zientzia ataleko zuloei?

- Zuria
- Baltza
- Urdina

> Aurrekoaren erantzuna: Aixerotako ibilbidea  
> Irabazlea: **Cristina de la Peña**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

> Aurrekoaren erantzuna: Loraila  
> Irabazlea: **Aiur Lejarzegi**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik** kontsulta podologikoa  
Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20  
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **berria**  
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma  
Astakiloen abenturak  
Berria aldizkariaren iruzkin bilduma

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



KARLA LLANOS ETXABEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

JAUNARTZEAK GETXOKO ANDRA MARIN, 1953

**Maiatza**, jaunartzeen garaia. Sasoi betean gaude eta astebururo betetzen dira elizak umez: ekitaldi handia askorentzat. Gaur dotore jantzi eta mezara, hurrengo domeketan ez dakigu, ordea. Eta ez da gauza barria. Gaur egun ume asko kalez jantzita doaz, baina ikusten denez, garai batean denak zihozazen marinelez edo kapitainez, eta neskak seguruenez emaztegaieen moduko jantziakaz. Argazki hau da horren lekuko. Garaiak garai eta jantziak jantzi. Jakin dugunez, adibidez, 30eko urteetan lazo zuria ipintzen zuten umeek besoan. Getxoko Andra Mari elizako zelaian hartu zuten irudia 1953an, Javi Imazen (Pecho Toro) etxearen aurrean. Egun hartan jaunartzea egin zuten mutilak dira, euren katekistagaz batera. ○

**Goian:** Eusebio Landeta, Fernando Vidondo, Eusebio Perez, Pedro Kortabitarte, Valeriano Gonzalez, Javier Bilbao eta Jose Ignacio Liñera.  
**Behean:** Luis Bilbao, Jesus Bilbao, Merino (katekista), Patxi Zuazo eta Santiago Perea.



AMANE IBAÑEZ GOIKOETXEA > kazetaria

# “Musikal batean arituko nintzateke, abestea gustatzen zait-eta”

Testua: Iker Rincon Argazkia: EITB



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Perfekzionista eta zorrotza.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Musikaletan, asko gustatzen zaidalako abestea eta dantza egitea.

**Zer barik ezin zaitezke bizi?**

Betaurreko edo lentilla gabe... ezer gutxi ikusi ahal izango nuke!

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Betiko bada ezingo nuke aukeratu, familia guztia eramango nuke.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Aurretik gaizki egindako zerbait berriz errepikatzea.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Hotel bateko jabea izatea.

**Eguna ala gaua? Zergatik?**

Eguna. Gabaz berehala lokartzen naizelako, eta beraz, egunari askoz ere etekin handiagoa ateratzen diot.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Bakio, Bermeo eta Mundaka arteko kostaldeko edozein toki.

**Oihukatu duzun azken aldia?**

Lobarekin nagoen bakoitzean. Bi urte ditu eta ez da gelditzen... hori bai, geldiezina bezain maitagarria da.

**Gogoko esaldi edo lelorik?**

Zaindu maite duzun hori.

**Animalia izango bazina, zein izango zinateke?**

Nire txakurra agian. Zintzoa delako, gozoa, mimosoa, ez duelako buruhausterik, asko zaintzen dugulako eta berak ere danok zaintzen gaituelako.

**Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?**

Sergio Ramosi, titular onak eskaintzen maisua delako. ○

**LABURREAN**—Pilotari eta Goazen telesailetan hasi zen Amane Ibañez (Mungia, 1989) EITBn aktore. Hala ere, gaztetxoagoa zenean *Betizu*-n ere ibili zen. Egun, kirolen berri emoten ikus dezakegu mungiarra ETB 1-eko albistegietan. Hala ere, kazetari jardungo ez balu, unibertsitateko irakasle izatea gogoko lukeela aitortu du, *“posible balitz, ikus entzunezko fakultatean, noski”*.

**ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI BAI**

**BOZKATU ehbildu herrikerabaki**

**RENAULT CLIO BERRIA**

- ESP ETA ABIADURA-ERREGULAGAILUA/MUGAGAILUA
- MANTENIMENDUA 2 URTEZ DOAN
- MP3 IRRATIA BLUETOOTH\* ETA USB-AREKIN
- AIRE GIROTUA
- TABLET-A OPARI\*\*

**9.600€\* -AN** PIVE 5

CLIO AUTHENTIQUE 1.2 16V 75 ZP Basic Pack-arekin

**TEKNOLOGIA BIHOTZEAN** **DRIVE THE CHANGE** **RENAULT**

**Clio Berriaren gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,5 eta 6,3 bitartean. CO<sub>2</sub> isuriak (g/km) 90 eta 144 bitartean.**

\*Eskaintza eta gomendatutako PSE/PSE-berriaren eta Balesarretan dira, 2014/05/31-ra arte. Renault Clio Authentique berria 1.2 16V 54 kW (75 ZP) Basic Pack-arekin erosi gero. Baina daude BEZA, matrikulario-zerua, garraioa eta RECSA eskaintza promozioak. Partikulariztat eta autoronmentat da, berriz PIVE-5 Pisuaren bidezko berriztatze bidez eta Finantziario mugatutako bidez RCI Garazte Sutsual en España-rekin egiten baduzu. Finantziararen gutxieneko kopurua: 6.000€. Egun diren agailutako mantenimendua 2 urteko garaia gabezko are. 2 urte edo 30.000 km-ekin arin lehenengo garbitzean dera. Mantentimendua RECSAren egian da. Ez da bideragarria beste inon ere erabiltzeko. Huelko erabilera: Clio Dynamique Energy TCR berria 565 kW (77 ZP) aukerak (17" ko aluskoak nagusak, pintura metalizatu berria eta 1. metalak pertsonalizazio-zerbitzuak). PSE gomendatutako erabilera eta PIVE-5 planaren aplikazioa: 12.700€. \*\*Promozioaren bidez Zipper sari in berriztatze egiten.

Renault gomendatzen du **elf**

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com  
**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta,  
ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan.  
ArgiHizkiak testu laburren euskarazko  
literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin  
marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura.  
Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien  
hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

**Maiatzaren 5etik ekainaren 5era**

## Argazkietan oinarritutako **TESTU LABURREN III. LEHIAKETA**



**ARGIHIZKIAK**  
[www.argihizkiak.com](http://www.argihizkiak.com)

### LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:  
[argi.hizkiak@gmail.com](mailto:argi.hizkiak@gmail.com) • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

**Labur-laburra:** 160 karaktere gehienez.

**Laburra:** 100 hitz gehienez

### ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

[www.argihizkiak.com](http://www.argihizkiak.com)

info+: [argi.hizkiak@gmail.com](mailto:argi.hizkiak@gmail.com)

t: 619 935 541



EPEA

**Maiatzaren 5etik ekainaren 5era**



URIBE KOSTAKO  
ALDIZKARIA



**aitxu!**  
sopelan auskeraz bizi!



BERBALAMIÑE  
euskaraz elkartea



berba  
lafun



Getxo  
URIBE KOSTAKO

Berango  
21



Leioa  
URIBE KOSTAKO

URIBE KOSTAKO  
MAYORALDIA  
ZERBITZU MANKOMUNITATUA  
EUSKAL ERAKUNDEEN BAZKARITZA  
URIBE KOSTAKO



ERAKUNDEA  
GOBIERNO VASCO



BFA  
DFB  
Euzko Futbol Federazioa  
Deutscher Fußball Bund